




**Bortzirietako gaztetxoek abesbatza sortu nahi da** **03**

9 urtetik aitzinerako neska-mutikoekin Giltzarri Tiki sortu nahi da Bortzirietan. Interesatuentzako bilera egingen da abenduaren 23an Lesakan.



**Olaizola II.ak lau t'erdiko laugarrena jantzi du** **49**

Aimar Olaizola goizuetarrak Julian Retegi eratsundarraren marka berdindu du, bere laugarren lau t'erdiko txapela jantzita. Finalean 22-17 gailendu zitzaion Irujori.

2008ko abenduaren 18a • XXVIII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**04 Elizondoko Jaime Urrutia karrika goxoagoa da orain oinez ibiltzeko**


**AITZINERA BEGIRA, APARKELEKUAK EGIN  
ETA PLAZA BERRITU NAHI DIRA**



# ORDOKI

altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



RENAULT

## SANTESTEBAN Tailerrak



Santesteban Tailerrak - Renault • Leitzako errep. DONEZTEBE • T. 948 450 282 F. 948 450 857 • doneztebe@red.renault.es



SEDAN DYNAMIQUE 1.5 DCI 105cv  
2007koa • 19.000 km



SCENIC DYNAMIQUE 1.9 DCI 130cv  
2007koa • 14.000 km



CLIO DYNAMIQUE 1.5 DCI 85cv  
2008koa • 6.000 km



MEGANE II EXPRESSION 1.5 DCI 105cv  
2007koa • 8.000 km



PEUGEOT 307 1.6 110cv  
2006koa • 28.000 km



KANGOO COMBI 1.5 DCI 65cv  
2007koa • 36.000 km

Clio III Emotion 1.5DCI 85cv, Scenic Expression 1.5DCI 105cv, Kangoo Grand Volumen 1.5DCI, Kangoo 1.5DCI (itxia), Megane II Dynamique 1.5 DCI 105cv, Espace Emotion 2.0DCI 130cv 7 plaza-koa, Espace Privilege 2.0DCI 150cv 5 plazakoa.

**Urte akabera arte "Lehendabiziko urtean arrisku orotako aseguru 300€ko frankiziarekin"**

## DATUAK...

- Hamaika urte pasatu dira Bortzirietako Giltzarri Abesbatza sortu zenetik. Geroztik hainbat eta hainbat kontzertu eskaini ditu eskualdean zein kanpoan.
- Orain, ordea, bertzelako egitasmo batekin dabil bueltaka: 9 urtetik aitzinerako neska-mutikoekin Giltzarri Ttiki Abesbatza sortu nahi du.
- Horretarako, interesatuekin bilera egingen du abenduaren 23an Lesakako Eskol-Ttikin, 18:30ean. Edozein zalantza argitzeko telefono hauetara dei daiteke: 670 322137 edo 636 489113.



Alex eta Oihana ABUIN, Leire ARRETXEA eta Gema SEIN ARGAZKIA: G. PIKABEA Giltzarri Abesbatzakoak

# «Abesbatza helduek maila ona izan dezaten gaztetatik hasi behar da»

Gurutze PIKABEA

**Noiz eta nola otu zitzaizuen neska-mutikoen abesbatza sortzea?**

Bortzirietan hutsune bat ikusi izan dugu betidanik, haurren mailan ez dagoelako korurik. Egon direnak beti elizari lotuak izan dira, mezetan kantatzeko. Gainera, Giltzarri Abesbatzan jendea bilatzeko arazoak izaten ditugu eta gisa horretara ttikien korua sortu eta Giltzarriren harrobia izan zitekeela pentsatu genuen. Urte batzuk Giltzarri Ttikin egin, prestakuntza jaso, eta gero helduen korura salto egiteko aukera izanen luke. Abesbatza helduek maila ona izateko gaztetatik hasi behar da.

**Zein da helduen koruaren egoera?**

Aurten jende berria sartu da, baina beti behar da jendea. Batzuk ikaratu egiten dira koruan gaudenak aunitz dakigula uste dutelako. Baina gu ere, bertzeak bezala, hutsetik hasiak gara. Bertze batzuk, berriz, ez dute astero entsegutara joateko ohiturarik. Lotua da baina ez badugu parte hartzen ez da aitzinera aterako.

**Zuen kasuan, mutil falta arazoa da?**

Ez dira aunitz, baina badira. Orain momentuan, Elizondoko koruarekin el-

**«Hurrengan kantatzeko ohitura edo zaletasuna sortu nahi dugu, eta horrez gain, kontzertuen bidez eta hemendik ateraz, gure ingurua eta folklorea ezagutarazi nahi ditugu»**

karlanean ari gara, eta eurek jendea falta dutenean gu joaten gara eta alderantziz. Eurek mutil aunitz eta emakume gutti dira; eta Giltzarri alderantzizkoa gertatzen da. Momentu honetan koru bat gara, eta batzuetan izen bat eta bertzeetan bertzea hartzen dugu.

**Zein izanen da Giltzarri Ttikiren helburua?**

Hurrengan kantatzeko ohitura edo zaletasuna sortu nahi dugu, eta horrez gain, kontzertuen bidez eta hemendik kanpora ateraz, gure ingurua eta folklorea ezagutarazi nahi ditugu.

**Zenbat lagun bildu nahi dituzue?**

Mugarik ez dago eta ahal den gehiena! Oraindik korua martxan ez badago ere, dagoeneko batzuk baiezkota eman digute. 9 urtetik aitzinerako jendearentzat ireki dugu, baina bakarren batek 8

urterekin sartu nahiko balu, izanen luke aukera. Musikari buruzko ezagutza edukitzea ere ez da beharrezkoa, denei dago zabalik, kantatzeko gogoia izatea da garrantzitsuena.

**Nola antolatuko duzue abesbatza?**

Helduen koruan zuzendari izateko ikasketak egiten ari diren hiru lagun daude eta horietako bat izanen da Giltzarri Ttikiko zuzendaria. Halere, bi koru diferente izanen dira: bakoitzak bere kontzertu eta ateraldiak egingen ditu. Agian momentu jakinetan zerbait egiteko bilduko gara. Errepertorioa oraindik ez dugu zehaztu, baina seguraski euskal kantekin hasiko gara. Entseguak zenbatero egin eta bertze xehetasunak abenduaren 23ko bileraren ondotik erabakiko ditugu, izena ematen duen jende kopuruaren arabera.

**Ongi ateratzen bada, noiz paratuko duzue martxan abesbatza?**

Aurkezpena martxo aldera egin nahi dugu. Lesakan izanen da, abesbatzak han izanen baitu egoitza. Baina ea hibel-tzan lanean hasten garen. Kontzertuak eskainiz hasiko gara eta bertze koruekin elkartrukeak egiten. Gero ikusiko dugu lehiaketetan parte hartu ala ez.



ARGAZKIAK: TOTU ITURZAETA

Aparkaleku berria Eliza inguruko parkearen ondoan egitea proposatu du Udalak hasierako zirriborroan, baina horrek eztabaida piztu du. Duela hiru urte ere eztabaidak sortu zituen aparkalekua Elizaren ondoan egiteak. Dena den, orduko ereduak ez du oraingo parkea ukitzen –ezkerrean–, baina bertze ereduak baino 18 aparkaleku gutiago ditu; eskuintean ageri dena, plantamenedu berria da. 44 aparkaleku ditu, baina oraingo parkearen egitura guztiz aldatuko luke. Elizaren zatira mugituko litzateke osotasunean.



# Elizondo erdialdeko urbanizazio berria osatzeko ideien lehiaketa egingen da

## EZTABAIDAREN ERDIAN APARKALEKUA ETA JOLAS-PARKEA

**Inoiz egin den urbanizazio aldaketarik handienaren aitzinean daude Elizondon. Herriaren erdialdeko itxura aldatu nahi da, edertu, eta aparkatzeko toki faltari aterabidea eman. Itxuraldatzeaz harat, polemika dezente sortu da herrian. Orain bi planteamendu daude kalapitaren erdian: plaza berri-tzea eta aparkaleku berria egitea. Hori dena hurbilagotik jakiteko, Agustin Olabe Baztango Udaleko hirigintza zinegotziarekin –NaBai– eta oposizioan dauden UPNko lau ordezkariarekin egon gara, Leopoldo Jaen, Isabel Vidart, M<sup>a</sup> Carmen Iribarren eta Jose M<sup>a</sup> Garmendia. Auzia bizi-bizi dago.**

Gurutze PIKABEA

**Jaime Urrutia karrika**

### Orain erdi-peatonala

Mugikortasun Planaren barnean, Elizondoko Jaime Urrutia karrikako obrak joan den astean akitu zituzten. Traba arkitektonikoak kentzeko dirulaguntza hartu zuen Baztango Udalak eta horren bidez, karrika-bazter edo espaloien altuerara altxatu da karrika eta pibote batzuk ere paratu dira oinezkoen eta ibilgailuen bidea mugatzeko. Aurrekontua: 96.683,96 euro.

Dena den, karrikaren zati bat aldatu dute orain, udaletxe paretik Ziga Plazara bitartekoa. Hurrengo urteko otsailan, Merkatuko Plazatik hasi eta Balleko Etxeraino egingen dute, 230.000 euroko aurrekontuarekin. Etorikizunean, Ziga Plazatik aitzinera, Jaime Urrutia akitu arteko zatia egin nahi dute.

Hasiera batean, karrika oinezkoentzako bakarrik izatea proposatu zuen Udalak. Baina aldaketak egin zituzte-

la adierazi digu Agustin Olabe zinegotziak: «merkatari eta bizilagunekin bildu eta ez zuten begi onez ikusi. Eurrek errandakoa aintzat hartuz, zuzenketak egin dira».

Pibote batzuek oinezkoen babesa ematen diete. Gainera, zortzi autorentzako geldialdiak egiteko guneak ere badira. Karga eta deskarga egiteko, 15-30 minutuz geldialdi mugatua. Horrekin batera, Balleko Etxe parean eta Ziga Plazan pibote pneumatikoak paratu dira, lurrazpian sartzen ahal direnak. «Noizbehinka erabat itxiko da karrika eta oinezkoentzako bakarrik geldituko da. Baina hori oraindik erabaki gabe dago». Bi helbururekin egin ditu lan hauek Udalak: «oinezkoen lehentasuna emateko eta merkatarien gunea berpizteko», azaldu digu Olabe. Lanak egin behar zirela aprobetxatuz, azpiko sarea ere hobetu da, gasa sartu da, eta iazko uholdeekin hondatuak gelditu ziren hainbat ubide konpondu dira.

Udalean oposizioan dagoen UPN alderdiaren arabera, ordea, «ez zen momentua». UPNko zinegotzi guztiak bat etorri dira horretan. Obra egin berriekin karrika «ongi gelditu bada ere, krisi garaian gaude eta Udalak guttiago bilduko duenez, beharrak lehenetsi behar dira». Horrekin batera, erabakiak hartzerakoan, UPN jokoz kanpo utzi zana ere leporatu diote NaBairi: «Dena NaBaik egiten du, gure iritzia zein den jakin gabe. Jaime Urrutiako merkatariekin bile-rak egin zituztela erran ziguten, baina ez ziguten bilkuretara gateko gonbidatu». NaBaik, aldiz, zera UPNri: «Hirigintza Batzordean hartzen dira erabaki guztiak eta UPNk ez du iritzirik ematen».

### Fco Joakin Iriarte karrika

## Espaloia paratu da ika-mikarrik gabe

Jaime Urrutiako lanekin batera, Francisco Joakin Iriarte Karrikan espaloia paratu zen. 65.234,50 euroko aurrekontuarekin egin dira eta honetan bat etorri dira Udaleko bi alderdiak: «beharrezkoa zen». Izan ere, trafiko handia eta oinezko aunitz ibiltzen den tokia da, Osasun Zentrora, Baztan Haur Eskolara eta Zahar Etxera doazenak hortik baitabilta. Abiadura murrizteko zebrabide bat ere paratu dute altueran.

### Aparkalekua eta plaza

## Foruen Plaza berritzeko ideien lehiaketa

Udalaren aspaldiko nahia da Elizondoko plaza itxuraldatzea. 2002ko Udal Planean ageri zen hori: «Foruen Plazaren ingurua Elizondoko berdegunea eta Espazio Librea da». PEPRI deitzen den plan berezi bat onartu zen eta bi unitatetan banatu zuten: batetik, plazaren ingurua jaso zuten, eta honekin batera, duela 25 urte bota zuten Kortearen etxearen antzeko bat berreraikitzea proposatu zen. Bigarren unitatean, Arizkunenea Kultur Etxea eta honen ingurua hobetzea planteatu zen. Plan berezi hori 2003an onartu zen, baina bere horretan egon da geroztik. Azken legealdian, Udalak berriz hartu zuen plana, baina aldaketa batzuekin: hasieran pentsatutako lurrazpiko aparkalekurik ez –«gehiegizko inbertsioa delako», dio NaBaik– eta Kortearen etxearen antzekorik ere ez –«udaletxea gordeta» geldituko baitzen, «protagonismorik gabe».

NaBairen hitzetan, azken urteotan egin diren azpiegitura lanetan saneamenduari eman zaio «lehentasuna», eta horiek akituta, «Elizondoko plaza konpontzeko garaia da».

Hirurteko Azpiegitura Planen deialdian sartu eta plaza berritzeko Gobernuaren finantzazioa izateko, memoria baloratua egin behar izan du Udalak.

Memoria horrek plaza nola gelditzen ahal den adieraziz, proposamen bat baino ez du jaso, ez da behin betiko proiektua. UPN alderdiak hori nahastu duela aipatu digu Olabek: «memorian ageri dena egin nahi dugula uste du, baina ez da inolaz ere horrela. Akaberakoa guztiz desberdina izan daiteke, ideien lehiaketa bidez erabakiko da». Hain zuzen, horri eman zioten hasierako onepena hilaren 1eko udalbatzarrean, NaBairen aldeko 7 botoekin. UPN abstentitu egin zen.

Ideen lehiaketa egitea da Udalaren asmoa. Olabek azaldu digunez, plegu bat prestatzen ari dira eta hilbeltzean udalbatzarretik pasatzea espero dute. Lehiaketa hori zabaldua herritarrek iritzia emateko aukera izanen dute. Aurkezten diren proposamenak jendaurrean paratuko ditu Udalak eta «100etik 20 puntu herritarren irizitik bilduko dira». Hiru sari banatuko direla iragarri dute: lehenak 6.000 euro hartuko ditu; bigarrenak 3.000 eta hirugarrenak 2.000.

## Aparkalekuekin tirabirak

Plaza berrituta, 30 aparkaleku desagertuko ziren. Eta hor bertze kalapita. Merkatarri zein herritarrek maiz eskatu dute aparkalekuak egiteko eta Udalak herrigunear egitea lehenetsiz, Santiago karrikan 44 autorentako aparkalekua planteatu du. Asmo horrek, ordea, Eliza ondoko haur-parkea ukituko luke.

Gaur egun, jolas-parkea dagoen eremuaren erdia Udalarena da, eta bertze erdia Elizarena. Udalak proposatu duen parkingak Udalarena den zatia hartuko luke, eta hortaz, parkea osotasunean Elizaren lurretan egin zedin eskatu zion honi. «Elizak, ordea, ezetz erran digu». Elizaren ezezkua ikusita, parkea plazan egiteko ideiarri heldu dio orain NaBaik.

Elizaren lurak ukitu gabe, eta haur parkea mugitu gabe, aparkalekuak egiteko bertzelako proposamena landu

zuen Udalak duela hiru urte eta 26 aparkaleku aurreikusitak zituen. Baina orduan «plazaren berritzea ez zegoen hain hurbil», dio Hirigintza zinegotziak. Orain bai, eta «plazako aparkalekua nonbait kokatu behar da».


Ez da Eliza horren kontra dagoen barrak; herritarren hainbat sinadura ere tartean daude. Haur parkearen inguruan kezka duten «260 sinadura» aurkeztu dituzte parkea ez kentzeko eskatuz. Horren gibelean gaizki ulertua da goela uste du Olabek: «gure asmoa ez da inolaz ere haurrei parkea kentzea». UPNk azaldu digunez, sinadurak hila-bete eta erdiz desagertuak egon dira, eta gainera, «gurasoek erran digutenez, 380 izan dira, ez 260». Alderdi erregionalista ere haur-parkea tokiz aldatzearen kontrakoa da, «ez litzateke orain bezala geldituko, oraingoa haurrentzat bakesa da eta gurasoentzat lasaitasuna».

Herritarren sinadurak kontuan hartzeko eskatu dio UPNk Udalari: «ezin da jendearen borondatearen gainetik pasatu, eta gaia berriz eztabaidatu eta bertze aterabideak bilatu behar dira».

Haur-parkearen afera da, dudarik gabe, eztabaidarik haundiena sortzen duena. UPNk jolas-parkea oraingo tokian nahi du, eta aparkaleku berria egiteko toki hobeak egonen direla uste du. NaBaik, berriz, proposamenak mahai gaineratzeko eskatu dio UPNri: «ez dira aparkaleku horren aldekoak, eta orduan non kokatu? Ekarriko du UPNk planteamendua? Zain gaude!», dio Olabek. Horren harira, UPNk eurei gaia aztertzeke ez planteatu izana salatuko du. Ideien lehiaketa egitearen aldekoa da oposizioa, eta hortik aterako ziratekeen aterabideak aztertu eta erretangarriena aukeratzearen aldekoa.

Bi proiektu, beraz, parkingarena eta plazakoa. Eta bi iritzi kontrajarri. NaBairen ustez, biak lotzea «nahitaezkoa» eta hori egitea «jokaldi bat» UPNrentzat.

## PLAZA ITXURABERRITZEKO IDEIEN LEHIAKETA EGINEN DA



Elementu hauek bederen sartu behar dira ideien lehiaketan:

- Plazaren zola berria
- Erabilera antzeko egoitza
- Turismo bulegoa
- Komunak
- Zuhaitzia
- Haurrentzako eremua
- ...

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemaneu Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2008ko harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	34 €
España	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Merkataritza gunea Lesakan?

Ongi erabilitako gezur bat, zurrumurru bat, esames bat edo txiste bat xelebrea eta atsegina izan daiteke ostatu batean, lagunarteko afari batean edo herriko poteoan. Baina kargu publikoa duten pertsonak erabakiak horietako batean oinarrituz hartzen dituztenean eta denborarekin aintzat hartu beharreko dokumentuekin lan egin ordez mantendu egiten badituzte, dramatikoak izatera irits daitezke.

Lesakako Merkatarien Elkarteko lehendakari andreaken adierazpenak irakurri ondotik diot hau. Irakurri nionez, bere agintaldian lortu duen gauzarik haundiena Lesakan merkataritza gunea erakitzeke zegoen proiektua geldiaraztea izan da. Eta noski, hori irakurtzeak zailak sortzen dizkio Lesakaren etorkizunak kezkatzen duen edonori:

Benetan zegoen behar hori? Eta baldin bagoen, non dago dokumentazioa?

Lehendakari andreak erraten ahal digu zein den merkataritza gune hori erakitzeke interesa duen enpresa edo pertsona horren izena eta non eskatu zuen baimena?

Inork baimenik eskatu ez badu, zergatik eman zaito segida iruzurrari?

Argi eta garbi, nik uste dut, ez dagoela eskererarik. Ez dut uste inor horrelako inbertsio batekin ausartuko denik, eskualdean jende nahikorik ez dagoelako. Gainera, ez dut lortu inork erakustea, eta noski, eskaerarik ez badago, Udalak ezin du ukatu, eta beraz, ezin dio deus ere adierazi Elkar-

teari (lehendakari andreak baietz erran du). Hor-taz, gezurrei buruz solasean segitzen dugu. Herria mugiarazi izanarekin gelditu gara eta dokumentuetan oinarrituz lan egin beharrean, gezur batean oinarrituz egin dela. Eta gezur hori guztiz nahita egindakoa eta zabal-dutakoa izan daiteke, hartara, Landazelaietan etxebizitzak eraikitzeke sinatu beharreko hirigintza hitzarmena geldiarazteke. Hori da momentuz Udalak geldiarazi duena.

Gelditze horren ondorioz, lehenik eta behin, Lesakako gazteak kanpoan inbertitu beharko dute edo etxebizitza kontutik jasotako irabaziak eta irabazi horien interesak Gobernuari itzuli beharko dizkiote, etxebizitza horiek eraikitzeke Udalak ez duelako negoziatzeko nahiko balentria edo gaitasunik izan.

Bigarrenik, baliteke Udala prozesu judizial batean sartzea eta horrek kalte-ordain haundiak eragin ditzake. Irmotasun nahikorik ez edukitzeagatik egin beharko dio aitzin arrisku horri eta lehendakariaren arabera, Elkartek egin duen presioagatik amore emateagatik.

Eta azkenik, gaineratu nahiko nuke, gai honen lesakar gehienak kaltetuak aterako badira ere, denborarekin Landazelaietan lortutako atzerapenari onura aterako dionik ere badela, eta horiek ez dira dira prezieski herriko merkatariek. Baina ailegatuko da honi buruz hitz egiteko eguna.

Norbaitek gai hauek guztiak dokumentuekin gezurtatzea gustatuko litzaidake, eta espero dut lehenbailehen egitea, nik eta ni bezala pentsatzen

duten bertze aunitzen zailak argitzeke.

Garbi utzi nahi dut idatzi honen helburua kalean entzundakoetan oinarrituz gai publikoetan lan egiteak dakarren arriskuaren berri ematea dela, dokumentu argiekin, behar bezala erregistratutako dokumentuekin eta gai garrantzitsuen eragina somatzen duten herriarrek horren berri izan gabe. Bat etorriko dira nirekin, halako dokumentuak gordetzeak, guttienez, nolabaiteko ezinegona sortzen duela, eta legez kanpokoak izateaz gain, zoritxarreko ondorioak izan ditzakeela.

**Jose Luis Etxegarai**  
**Lesakako EJA-PNV**

### Izan zoriontsu

*Brno, 2008ko azaroaren 18a*

*A... maitea:*

*Zer moduz zaude?*

*2002ko eguberrietan aitaren batean oroitu nintzen zuk niri errandakoa gauero otoitz egin nezan badaezpada zer gerta ere, eta batez ere zoriontsu izan nendin eskaria egin zenidan. Ez dakit zure eskaria bete dudan... baina nigatik egon lasai, neure bidean noa, beti aitzina... zuk erraten zenidan bezala, aita, nigatik lasai egon, baina nahi duzunean badakizu non nagoen...*

Hostoak negar tanten modura erortzen diren garaiotan, malkoek egindako bideetan oroimina datorkit, eta udazkeneko zuhaitzak bezalaxe ni ere biluzten naiz hotz dardarez teilatu hormatuak begien bistan. Hosto ximel batzuk erori zaizkit, baina oroitzapenek eusten diote enberrari. Oroitzapenek eusten naute.

Agur erran genion elkari duela sei urte, baina nik

ez nizun agur erran nahi eta biharamunea besarkatuko zintudala amets egin nuen gauean. Zuk bai, zuk agur erran zenidan eta erran zoriontsu izan nendin, arren... saiatu naiz, aita, baina hain sentitu naiz bakarrik! badakit amak nik bezainbeste edo gehiago sentitu izanen duela zure hutsunea, baina beti iruditu izan zait berak laguntza gehiago izan duela eta horregatik, egia erran, bera-rengandik urrundu egin naiz.

*Zoriontsu izan, Ainarita!*

Eta saiatu naiz, baina mina handiagoa izan da maitasuna baino, eta min horrek maite ditudanengandik urrunarazi egin dit, ezkutu bat paratu baitut ni eta bertzeen artean. Hutsunea. Akastuna izan naiz eta beharbada min eman diet bertzeei, baina min handiena nik hartu dut.

Hutsunea handia dut barnean eta huts horrek toki handia hartzen du oraindik ere neure bizitzan... zu gabe ez, ezta zurekin ere... baina aitzina segituko dut neure bidean, lasai. Bizitzak ere ezusteko atseginak ematen baititu noizean behin eta horiek probexten saiatuko naiz. Izan ere, duela hiru urte udaren azkenak ezusteko atsegin bat ekarri baitzidan neure bizitzara eta maitemindu nintzen. Ordura arte zure aurpegia ikusten nuen gauero ilargiaren alde agerian, eta geroztik bertze baten aurpegia ikusten dut, zeurea ilargiaren alde ezkutuan gelditu delarik, nire zori(on eta txar)aren zelatari... berak ere agur erran dit, zuk bezala, eta zoriontsu izateko opa. Biok aunitz maitete zaituztet eta kasu egiten saiatuko naiz, zuek segi lasai zuen bidean, ni

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

neurean noa, beti aitzina, baina nahi duzuenean itzuli.

Agur erran genion elkarri, bai, baina agur hori ez zen betirako izan, betiko oroitzea baizik Oroitzea, beharbada, noizbait elkar ikusiko dugula eta ez badugu elkar ikusiko ere noizbait elkar ikusiko dugun itxaropenaz biziko naiz zoriontsu. Ez zaitut ikusten, baina bai sentitzen: kanpoan hotz delarik, halako berotasun batek inguratzen nau zuk errandakoaz oroitzen naizen bakoitzean... «badakizue beti bihotzean eramanen zaituztedala... aurtengo negua lehenago heldu zait, ez dut hil nahi!». Denok hil behar eta inork ez nahi, hau bizi tristea!

Baina beti bizi zara, aita, beti zaude neuregan, lur honetan. Hiruretan hogeita bortsu urte bete zenituen lur triste honetan, negua heldu zitzaizun biziberrituri. Hala ote?

*Bakarrik omen nago, baina ez naiz bakarrik sentitzen.*

**Ainara Maya Urroz**  
Brno (Txekia)

### Leitzako ikurrinaren harira

Urteak joan urteak etorri, arrazoia eman nahi diet, Leitzan ikurrinaren alde auzardiaz mozio, ekitaldi... egin dituzten orori. *Zaku berean ez gaude denak* esateko idazten dut idatzi hau, aurreko alean kritikatuak izan zirelako hautetsi batzuk.

Begiak ireki ditut eta Leitzan ANVkoek ikurrina udalletxean ez jartzearen jarrerara pasiboak UPN-PPren eta Francoren jarraitzaileen aurrean burua makurtzea leporatu nahi diet, egia esan beraien parean ez jartzeagatik.

Ikurrina udalletxean orain! Gurea delako eta euskaldunak garelako.

Politiko defraudatzaile guztiak kalera!

**Susana Sagastibeltza**  
Leitza

### EREa Funveran

Funverako langile gehienek EREa sinatzeko

zuzendaritzaren proposamenaren aurrean ELA sindikatuak aurkeztu zuen proposamena onartzea erabaki zuten. Honen ondorioz, langile guztiak (ia 200 langile) langabezirajonaren dira datozen sei hilabeteetan, gehienez 58 egunez.

LABek, enpresak harturiko neurri honen aurrean tinko erran du ezetz, erabat proportzioz kanpoko delako enpresaren egoera kontutan hartzen badugu; milioika eurotako irabaziak (6 milioi euro), eta aurtun 4 txandatan lan eginez EREa aurkeztu baino lehen. Ondorioz, 2008ko urtea ere irabazi handiekin itxiko du. Horrez gain, erran beharra dago, enpresak azaroaren lehen hamabostaldian ezarri zuela 6 egungo flexibilitatea eta beste 5 egungo «zorra» eginarazi zigula, aldatxandako egutegia enpresa berak moztu zuelako urtea bukatu baino lehen, horrela 11 egun dira, enpresak nahi duenean, langileok errekupeperatu behar ditugunak.

Ezinezkoa da langileak soilik izatea beti merkatuaren gorabeherak edota enpresaren gestio txarra jasan behar dutenak. Hau dela eta LABetik gogor salatzen ditugu enpresek hartzen dituzten neurri hauek, eta halaber, gogor salatzen dugu ELA-Funverako sekzio sindikala, Nafarroako Gobernuak EREa aplikatu ez dezan enpresaren aurrean inolako salaketarik ez egiteaz gain, hasiera-hasieratik onartu baitu enpresak plantearikiko egoera. Gustura sartu da gainera ERE hori sinatzeagatik enpresak eskaini dion dirua onartzeko negoziaketetan. Zentzu honetan adierazgarria da ikustea nola, gai berari buruz, ELAK bi alde desberdin agertzen dituen; alde batetik, hedabidetan eta bere web orrian gogor salatzen ditu irabaziak dituzten enpresak EREaren bidez irabazien tartea handitu nahi izatea, eta beste aldetik, Funverako kasuan bezala, onartzen dute hasieratik enpresak diona, nahiz irabaziak egon, ERE-

aren sinadura negoziatzeko. Bukatzeko asanblada bat konbokatu dute langileen eskutan uzteko EREa onartu ala ezaren ardura, bi aukera bakarrik ipiniz horretarako, hau da: gauza txar bat onartu (EREa sinatzea ELAK sinaturiko balditzetan) edo gauza hagitx txar bat (EREa ez sinatzea eta INEMek kasu hauetan ematen dituen laguntzekin gertatzea) erranez gainera EREa sinatzeak ez duela inongo ondorio txarrik ekarriko langileentzat etorkizunean.

Laburbilduz: ELA-Funverako sekzio sindikalaren aldarrikapenerako borondate ezak ekarri du EREa sinatzea, honen ondorioak gure ikuspuntutik hagitx txarrik izanen dira epe ertainera langileontzat, ulertzen dugulako hau onartuta atak irekitzen dizkiogula etorkizun batean bertze ERE batzuk aurkezteko, eta hau enpresak aprobetxatuko duela ez dudarik izan.

LAB-Funvera

## Zorionak!!

1951tik lentzeria-etxea  
*Casa Cambra*

- edredoi fundak
- albornozak
- edredoi nordikoak
- ohe estalkiak
- maindireak
- mantelak
- kuxinak
- toaillak



Tafalla, 13 • IRUÑEA      948 230 634

# Yakubu naiz, ~~Nafarroako~~.

ETA EZ BALU INPORTA  
NONDIK ZATOZEN, BAIZIK  
ETA NORA ZOAZEN?  
A ZER GOZAMENA!



BERDINAK GARA. DESBERDINAK GARA.  
PERTSONAK GARA.

2012 ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA

 Nafarroako  
Gobernua





# Pentsatu duzu zer oparitu eguberrietan?



BAZTAN-MALERREKA-BORTZIRIAK-DANTXARINEA-IBARDIN-IRUN

*Zorionak eta urte berri on! Irakurle guztiei!*



**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK  
JAURENA**

Julio Caro Baroja, 6 behea  
31780 BERA  
Nafarroa  
Tel/Faxa: 948 631 217

**EGUBERRI ON!!!**



**cenor**  
Etxetresnen denda



**besta**

tout pour la fête

Gabonetako apaingarria  
Jantziak  
Petardo, suziriak

... bestarako guzia

Geltokiko karrika, 13  
64700 Hendaia  
Tél.: +33 (0)5 59 48 37 58

**ainhoa**  
estilista

RUTH ILEAPAINDEGIAN



- AURPEGI DEPIKAZIOA,
- SOLARIUM,
- SPRAY SOL,
- MAKILLAJEA,
- MAKURJA,
- ILE BILDIAK,
- TRATAMENDUAK,
- ILE-LUZAPENA

Bittiria 59  
LESACA  
948 637 436

**urte berri on !!**



**Kotoi**

- Gortinak
- Estoreak
- Etxerako ehungintza
- OsagarriaK

*eguberri on!!*

Bidasoa 14 • 31780 Bera T.F. 948 631 660

Jaime Urrutia, 18 • ELIZONDO

**FANTXIKE**

**Pinpirin**  
PELIQUERIA • EL PAPA INDEBIA

Aitziber  
Urbia Santesteban

**EGUBERRI ON!!**

Plaza zaharra 26  
31770 LESAKA  
Tfnoa: 948 63 80 37

**MARIAN MENDIBERRI ORKIN**

**% 10** Lurrindegia eta Kosmetikan

**% 25** Jantzietan

**ZORIONAK eta URTE BERRI ON !!**

ORRIBI PLAZA 8 • LESAKA 31770 948 637 718

**GOYA**

- Baserritar jantziak
- Arropak
- Trango marka
- Mairidreak
- Mantak
- Toailak
- Gortinak
- Alfonbrak

**EGUBERRI ON !!**  
Altzate, 5 • BERA  
948 630 083

**Comercial Maria Jesus**  
Burdindegia • opantzeko gauzak • Pintura  
Sukaldeko tresneria • Berneko arropa • Ornatuak

**MAPPRE** JIG TXORRENA  
Kalea 20a 02000

Plaza Zaharra, 29 • LESAKA  
948 637 105 • 948 637 220

**ARKUPE**  
goxotegi • kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:  
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA • Tfnoa: 948 452 021  
ELIZONDO • Tfnoa: 948 452 393

**edurne**  
HAUR ARROPADENDA

**ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!**  
Altzate, 20 • BERA • 948 631 481

**Burdain**  
bitartegia erlojategia

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!**

Berekoetxea Gotzai, 4 • ELIZONDO  
T.F: 948.580.445

# Pentsatu duzu zer oparitu eguberrietan?

**IPINGI**

- Berrak berrak eta informazioak
- Erakusketak
- Ekitaldirik gabeko irteerak
- Osoak

**ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!**  
Eguberrietan amaitu ez ere irakita abenduak 20, 27 • urtarrak 3

Berriago 88 • ELIZONDO • 948 580 128

carniceria harategia

## Esarte

ELIZONDO 948 580 128  
DORRIZTEBE 948 456 152

**bixkiak**  
arropa denda  
KIROL ETA MOJAKO ARROPA DENDA

Arretak, 7 B2 • LESAKA • 948 636 110

**IBARROLA**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Pamplona Kalea 9 • Donostia  
948 400 462

MARKA BERRIAK

tuc tuc Pampolina MINIMAN MARCA BERRIAK  
PJE coccolino walyolal.es

948 631 218  
Kantianberri 1, BERA

## KATEA-BIKE

**BIZIKLETA SALMENTA  
ETA KONPONKETA**

Zorionak eta urte berri on!

*Deñe*  
MERTZERIA • LENTZERIA

Denkak Plaza, 10 • LESAKA • Tel.: 948 627 514

Gure prezio apalketatuz balia zaitez!

- %5 makillajeentzat

- %10 krementzat eta lurrin kutxetan

- ⇒ Benta Biok eta Benta Mirentxu Ibardineko lepoa
- ⇒ Benta Lapitxuri Dantxaria

**Justa Mendak**

Arretak, 3 • IRUN  
943 638 223

Prim, 59 • DONOSTIA  
943 470 244

- Paseorako kobia eta aukierak aukera zabala.
- Merkatuko marka nagusienekin lan egiten dugu
- Soaska, moises eta bainerrak
- Autorikoko segurtasun-aulkiak
- Jaiak berrirentzako behar dituzun guztia

**LARUNBAT  
ARRATSALDEAN  
IREKIA**


# DENDA ETA ZERBITZUAK DITUEN HERRIA,



Telletxea janari-denda



Agara kirolak



Artieda M. Lentzeria



Arturo arropa-denda



Zubi Ondo jatetxea



Bera Informatika S.L



Bidaxka ostata



Bortzirudi Fotokopistegia



Botxo ostata



Guria drogeria



Goxo ikuztegia industrialia



Global Language School



Errandonea fruitu eta barazkiak



Goiko argazki-denda



Carlos iturgintza



Mutuavenir seguros y servicios



Semper auto-eskola



Susana janari-denda



Txalupa arraindegia



Txepetxa albaitaritza klinika



Goya



Ansonea hostala



Churrut hotela  
Lenkonea jatetxea



Igone liburu eta paper-denda



Ikuilu ostata



Martzuzak arropa-denda



Labezar okindegia



Kotoi



Kirolak Zela



merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkartea


# BIZIRIK DAGOEN HERRIA



Ugaldea aholkularitza




Ayla argazkigintza



Lixoia ostatua



Beti Jai ostatu-jatetxea



Baztango inmobiliaria



Eduarne Haur arropa-denda



Elkar paper-denda



Elortziri arraindegia



Errekalde ostatua



Artieda estankoa



Azalea lore-denda



Manolo ferreteria



Expert-Bortziriak



Estival Tour bidaiak



Prieto estankoa



Txomin Irazoki fisioterapeuta



Yasola Benta



Kalash Bitxi-denda



Yoan ileapaindegia



Katea Bike



Ilaiki ileapaindegia



Jaione gozotegia



Xirgil ileapaindegia



Kalotxa zapata-denda



Karlos Altzugaray fisioterapeuta



Sarobe Okindegia



Puri-enea



Pikabea harategia



Ostargi optika



Oroz janari-denda

# ZORIONAK eta URTE BERRI ON



**ZORIONAK**

**lilura**  
ileapaindegia

Rosa Seminario, 17 • DONEZTEBE  
Tel 948 451 961

GIZON ETA EMAKUMIEN DAKI MODA-MODAKO  
KOLORE ETA DIRAZKERAK

**Miranda**  
LIZONDO

Pamplona, 11  
DONEZTEBE  
948 45 01 12

Jaime Urkua, 43  
ELIZONDO  
948 561 301

**Zorionak eta urteberri on!**

**intzuri**  
OPTIKA

Naiara Albarro Pategi  
Optiko-Optometrista

ikusmenaren azterketa,  
begi tentsioaren neurketa  
lentilen egokitzea,  
lanerako babes  
bataurrekoak...

Bititxia 36 | **LESAKA** |  
t: 948.627550 |

Gure prezio apalketat  
balia zaitetz!  
- % 30 erak  
- % 50 erat  
marka desberdinetako  
jauntzietan

- ⇒ Benta Biok eta Benta Mirentxu Ibardineko lepoa
- ⇒ Benta Lapitxuri Dantxaria

Gozotegia

**Malkorra**

Urrekin egina  
Tartak eta pastelak  
Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 • Tel: 948 580 061 • ELIZONDO

**ENDANEA**  
HAZTEGIA

Eguberriak modu berezian apaintzeko zatoz Endaneara

ORDUTEGIA  
Ilgande eta astelohenetan  
9:00 - 14:00  
Asteartetik larunbatara  
9:00 - 20:00

Jasotutako Auzoa, 40  
HONDARRIBIA  
Tel: 943 641710  
www.endanea.com

**PINU NATURALA DOAHINIK** Bale bait emango dizute eta...

*Live*  
**PLATINUM**  
ZORIONAK

Danda guretzat zago

BE BIKI NEZA. Laster dabilena  
Eskatu informazioa bereziki gure  
9:30 eta 9:30ko arte

CALVIN KLEIN BOLTZOAK 9:30 arte  
Ameketa.org • 948277390 • T. 948 450 363

# Pentsatu duzu zer oparitu eguberrietan?

**CAPELETTI**  
KURRA

Mendebaldeko merkatalaren gizona  
20302 IRUN  
943 624 622  
www.capeletti.com.es

**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Ezkongaitzat jantziak

Serapio Mujika, 9  
20302 IRUN  
Tel.: 943 612 626

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!!

**Mikkala**

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Bidasoa 41, Bera • Tel. 948 630 560

**BL**  
arropa-denda

BIDAZOIA  
Bidasoa plaza 17 - 20900 - Tel. 948 630 100

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

arropa-denda  
eguberrietarako  
-%20

Alberdiak, Bercos, Borch, ...

Alberdiak, Bercos, Borch, ...  
Alberdiak, Bercos, Borch, ...

eguberrietarako  
-%10

Center **KEIZO** BOSS HODIAK 100% kotoia

## Merkaopari

Eguberrietan ez dakizula zer oparitu?  
Etorri eta arreta handiz lagunduko dizuegu

Ongi pasa bestak eta Urte berri on!



Donezteben - Beran - Elizondon

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

**CASA OSTIZ**

ZAPATA-DENDA • TABAKO-DENDA  
LIBURU-DENDA • PAPELTERIA

Pasaleku 17 • DONEZTEBE  
Tel.Fax: 948 400 290  
ostiz@telefonica.net



**NIVAL**

Erlategi plaza, 4  
ELIZONDO • 948 581 822

**ESKIZ**  
INFORMATIKA ZERBITZUAK



- ORDENAGAILUAK • INPRIMAGAILUAK • TAILER PROPIOA
- MULTIFUNTZIO-INPRIMAGAILUAK • ZERBITZU PROFESIONALA
- IKASTARUAK (hasmenta, irudi digitala, Office, internet...)
- KONTABILITATE ETA FAKTURAZIO PROGRAMAK
- WEB ORRIAK

**EGUBERRIETARAKO  
ESKAINNTZA BEREZIAK**

# DANTXARINEAko Landibar IBARDINGo Venta Peio LUZAIDEko Venta Peio BEHOBIAko Marionnaud-en

**USAIN GOXOEN TXOKOA aurkituko duzu. Markarik ezagunenetan**

**ROCHAS, CHRISTIAN DIOR, BOTHERM, CLARINS, CHANEL, GUERLAIN,  
IVES SAINT LAURENT, PACO RABANNE, THERY MUGLER, ARMANI...**



## **Bera (Administrazioa)**

31780 BERA  
Tel 948 625 130  
Faxa 948 625 123

## **Dantxarinea**

31712 URDAX  
Tel 948 599 389  
Faxa 948 599 446

## **Ibarra**

31780 BERA  
Tel 948 630 719  
Faxa 948 631 306

## **Luzaide**

31660 LUZAIDE  
Tel 948 796 014  
Faxa 948 790 181

Eguberrietako  
egun berezi  
hauetan  
gustoko opariak  
egin eta jasotzeko

**EUSKAL HERRIKO PREZIORIK HOBERENAK**



**BERA**

## Tunisiara bidaia zozketatuko du Larun Haizpek Eguberrietan

Horrez gain, haurrentzako parkea ere zabalduko du

**ttiipi-ttapa**

Gutti gelditzen da 2008ari aio erran eta 2009ari ongi-etorri egiteko, eta giro horretan hainbat ekitaldi antolatu ditu Larun Haizpe Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarrekin Eguberrietarako. Udala, Rural Kutxa eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso dute horretarako.

Batetik, **haurrentzako parkea** antolatu du. Hilaren 26tik 30era paratuko dute Altzateko frontoian, 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara. Eguneko sarrera 3 eurokoa izanen da eta bartz eguneko bonoa 10 eurokoa. Parkea zabaltzen duten egun horietan egonen dira salgai.

Neska- mutikoek ederki pasatzeko aukera izanen dute: puzgariak, rokodromoa, gizakien futbolina, ludoteka, salto egiteko ohatzeak eta informatika eta pintura gela izanen dira.

**TUNISIARA BIDAIA**

Larun Haizpek zure erosketak saritzen ditu lelopean bertze kanpainan bat ere antolatu du. Hala, Tunisiara bidaia **bi lagunentzako eta aste bateko egonaldia** zozketatuko du Eguberrietan



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Leherketa egunetan Altzaten ezin da aparkatu** N-121A errepideko obretan leherketak egiten direnean errepidea itxi egiten dute eta autogidariekin ibardingo bidea hartu ohi dute. Horrek, ordea, auto ilarak eragiten ditu Alzate karrikan. Karrikan bazterrean autoak uzteko joera handia dago eta horrek ibilgailuak bi norantzan ibiltzea oztopatzen du. Arazo horri aterabidea emateko neurriak hartu ditu Udalak. Hala, leherketak dauden egun eta ordutegian ezin izanen da Alzaten utzi ibilgailua. Horren berri emateko seinaleak paratuko ditu Udalak. Argazkian ageri denez, autoak bazterrean aparkatuak daudenean ezin dute bi ibilgailuak gurutzatu eta batek gelditu behar du.

tan elkarteko dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Erosketak egiteagatik boltoak banatuko dituzte dendariak eta bidaia turistikoa heldu den urteko martxoaren 1etik 31ra egiteko izanen da. Zozketa urtarrilaren 6an eginen den Erregeetako loteriaren lehen zerbaki sarituaren berdina izanen da.

Bertzalde, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko, zenbait larunbat

arratsaldetan dendak zabalduko dituzte Larun Haizpekoek: abenduaren 20an, 27an eta urtarrilaren 3an.

**Olentzero eta Urtezahar eguna**

Hainbat ospakizun izanen dira aurrean ere Eguberrietan. Abenduaren 24an, Olentzeroren bisita izanen dugu eta hala, arratsaldean neska-mutikoak Eguberrietako kantak abesteko bilduko dira,

17:30ean, Herriko Etxeko plazan. Ilunabarrean, berriz, gazte eta helduen txanda izanen da eta karrikaz-karrika ibiliko dira.

Urteko azken egunean, Glin-Glana eta Diostesalbearen txanda izanen da. Urtezahar arratsaldean, 15:00etatik aitzinera, haurrak auzoz auzo ibiliko dira, *Glin-glan, glin-glan, duenak ez duenari emankantua* rekin eskean. Beranduago, berriz, 18:00etan, Diostesalbea. Koplakan-



**PERTSONAIA**

Mikel PIKABEA  
**Mister Nafarroako finalisten artean**

Garaipenik ez du lortu, baina Nafarroako misterra izateko atarian gelditu da Mikel Pikabea. Abenduaren 9an Iruñean egindako finalean izan zen 21 urteko gaztea, bertze bederatzita lehiakiderekina batera.

tuan ariko dira gazte eta helduak herrian barna.

**Gaztetxoaren korua Bortzirietan**

Giltzarri Abesbatzak 9 urtetik aitzinerako gaztetxoaren korua sortu nahi du Bortzirietan, eta horretarako bilera eginen du Lesakako Eskol-Ttikin hilaren 23an, 18:30ean.

**Sari banaketa ortziralean**

Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketako sariak banatuko dira ortziralean honetan, abenduak 19, Herri Liburutegian. 18:00etatik aitzinera izanen da.

## LESAKA

# Eguberrietako ohiko ospakizunak ekitaldi berriekin nahasiko dira

'Etengo ez den soka' jaialdia antolatu du Ikastolak abenduaren 28an

Aitor AROTZENA

Eguberriak gainean ditugu eta garai honean ohikoak diren ospakizunekin batera, bertze hainbat ekitaldi berezi antolatu dira Lesakan.

Hasteko, abenduaren 17an, asteazkenean, Eguberrietako kontzertua eskainiko du Udal Musika Eskolak, 17:00etan udaletxeko Pleno Aretoan hasiko den emanaldian.

Abenduaren 19an, ortziralean, berriz, Eguberrietako jaialdia izanen dute Irain eskolan, goizeko 11:30etik aitzinera.

Asteburuari begira, larunbatean, abenduaren 20an, Batzoki elkarteak antolatutako paleta goma txapelketaren finalak jokatu dira, lehen eta bigarren mailan, 17:00etatik aitzinera. Egun berean, Eguberrietako kalejira eginen dute herriko musika taldeek, 19:00etan hasita.

Igandean, abenduaren 21ean, Beti Gazte elkarte mendi sailak Elutxara ibilaldia eta txistorrada antolatu ditu. Goizeko 8:00etan abiatuko dira plazatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 24 bertsolarik parte hartu zuten Bortziritako taldekako hamargarren bertso lehiaketan

Zortzi hirukotetan banatutako 24 bertsolarik parte hartu dute Bortziritako X. taldekako bertso lehiaketan. Bertsolariak ez ezik, trikitilariak, gai-emaileak, gai-jartzaileak eta epaileak ere bertso eskolatik ateratakoak ziren. Otordu eta ostatu giroan jokatzeko den lehiaketan, bertsolari konsagratuekin batera (Nafarroako 5 txapelak aritu ziren), txapelketetan eta saioetan ohikoak direnak eta gutti aritzen direnak nahasten dira, baita jendaurreko lehen saioa zuten batzuk ere. Lindurrenborda sagardotegian egindako afariaren ondoren jokatu zen finalean Aro(t)zenatarrak taldeak (Manolo, Estitxu eta Aitor) 7 puntuko aldea atera zien Xabier Silveira, Jon Elizetxe gartzaindarrari eta Egoitz Gorosterrazu iturendarrari. Iban Garro herritarrak lortu zuen Berrako Espidobaita elkarteak bertso onenari emandako 'Kotto Saria'.

Jakina, abenduaren 24ko eguerdian, Jaio-tza eta Olentzero lehiaketak eginen dira plazan. Ilunabarrean, ohi-turari eutsiz, Olentzero irabazlea karririkaz karririk ibiliko da, Udal Musika Bandaren laguntzarekin

Azken urteetan indarra hartzen ari den

ekitaldia, Lesakako Abesbatzak lagunduta egiten den kantu zahar poteo herrikoa, abenduaren 27an eginen da, larunbatearekin, 20:00etan Kasinotik abiatuta.

Abenduaren 28rako, iganderako, Tantirumairu ikastolak *Etengo ez den soka* izeneko jaialdia antolatu du arra-

tsaldeko 17:00etan komentuan. Ikastolako ikasle eta ikasle ohien eskutik musika, dantza, olerkiak, ipuinak eta bertze zenbait ikuskitu zuten uztartuko dituzte.

Abenduaren 30ean, asteartean, Abesbatzak emanaldia eskainiko du Andra Mari egoitzan, 17:00etan.

## FLASH

## Mikel Laboaren errautsak Aginan

Abenduaren 1ean hil zen Mikel Laboa kantariaren errautsak abenduaren 7an zabaldu zituzten Oteizak Aita Donostiaren omenez egindako eskulturaren ondoan, Agina mendian.

## Joxe Mari Erkiziari omenaldi xumea

Beti Gazteko jokalaria eta jokalaria ohiek eta zuzendaritza batzordeak omenaldi xume bat eskaini zioten Joxe Mari Erkiziari, aurten arte lehen taldeko entrenatzaile izan denari. Abenduaren 7an Koxkontan egindako bazkalondon, bere ibilbideko argazkiak biltzen zituen koadroa eta 'Urrezko' bota oparitu zioten.

## Gaztetxoek korua

Giltzari Abesbatzak 9 urtetik aitzinerako gaztetxoek korua sortu nahi du bortz herrietan, eta horretarako bilera eginen du Eskol-Ttikin hilaren 23an, 18:30ean. Interesatu guztiei gonbidapena luzatu diete.

Abesbatzako kideek Urtezahar egunean ere lana zanen dute, arratsaldeko 18:00etan abiatuko baita *Diostesal* kalejira Plaza Zaharretik. Abesbatzako kideak ez ezik, herriko elkarte eta bizilagunak ere gonbidatu ditu Udalak ekitaldian parte hartzera.



## ETXALAR

### Emaitza hagitz onekin akabatu dute uso-denboraldia Usategietan

Hurrengo astean hasiko dira aurtengo Eguberrietako ekitaldiak

#### Joseba eta Nerea

Tirabirak tirabira, eta polemikak polemika, uso aunitz harrapatu dute aurten l'harmendi gaineko sareetan. Joan den azaroaren 21ean akabatu zuten urriaren lehenbizian hasitako uso-denboraldia, eta Gerardo Danboriena usazaleak adierazi digunez, «hagitz kontent gaude emaitzarekin. Guztira 1.608 uso harrapatu ditugu, 134 dozena». Joan den urtekoa baino kopuru tikiagoa da, iazkoa aspaldiko urteetako sasoirik hoberena izan zelako. Zaila zen hura berdintzea. Baina azkeneko bospasei urtetako martxa ikusita, «denboraldi ona» izan dela aitortu digu Gerardo. Gehiago ezin eskatu.

Azaroaren hondaraldera, hagitz egun txarrak izan ziren, eta horregatik ez zuten denboraldia gehiago luzatu. «Gosaldu eta etxe-

ra joaten ginen. Horrela, ez zuen merezi gehiago segitzarik». Hala ere, ez dute eguraldiaren kezarik izan. Hego-haizet gutti ibili da, eta azaroan euria eta eguraldi txarra izan bazen ere, orokorrean, eguraldia lagun izan dute denboraldia hasi zenetik.

Uso goiztiarrak izan dira aurtengoak. Urriaren lehenbizian pasa handiak izan ziren. «Urriaren 10ean kasik 25 dozena harrapatu genituen. Aspaldiko urteetan ez naiz oroitzen hain goiz hainbertze uso harrapaturikan», adierazi digu Danborienak. Egun gutti batzuk hagitz onak izan ziren. Urriaren 17a, 18a eta 19an, adibidez, sekulako pasa izan zen.

13 usazale aritu dira Usategietan bi hilabetez lanean. «Denak egunero egotea ez da erraza, lan kontuak direla-eta. Baina elkarren artean txandakatuz, ederki moldatu gara».



ARTXIBOKO ARGAZKIA

#### Euskal Herriko azpitzapeldunak

Urtero bezala, Etxalarko usazaleak Ipar Euskal Herriko bertze Usategietako lankideekin elkartu ziren uso-denboraldiari akabera emateko (oroitu dezagun Hego Euskal Herrian Etxalarko Usategiak direla bakarrik). Muskildin (Zuberoa) elkartu ziren abenduaren 6an, Napaleko usazaleek gonbidatuta. Han egin zuten urteroko rankinga; usategi guztiek harrapatutako uso kopurua kontuan hartuta egiten dutena. Aurten 2. postua lortu dute etxalartarrek. 70 usoren diferentziarekin, azpitzapeldun gelditu ziren, Sueskungo Lantabat usategien ondotik. Zorionak! Joan den urtean Etxalarren egin zen usazaleen topaketa hau –argazkian– eta orduan hirugarren gelditu ziren herritarrek.

Asteburutan herriko gazte franko animatzen da usazaleei laguntzera, baina astetartez ez da hain erraza. Halere, badirudi aitzinera begira ez dela arazorik izanen ohitura zahar honi kontzeko, usazale gazteak heldu direla ematen baitu.

#### Olentzero ate-joka

Egun gutti falta dira 2008ari aio errateko, eta horren aitzakian, urtero

bezala, hainbat ekitaldi izanen dira herrian. Lehenbizikoa abenduaren 24an egingen da, Olentzeroren etorrerarekin. Aspaldiko ohiturari segituz, ilunabar aldera kalejira egingen da Olentzeroren irudiarekin. 18:00-etan meza izanen da, eta ondotik, trikitalari, txistulari eta koruko abeslariarekin batera, auzoz auzo ibiliko da Olentzero, geldialdi tikiak egin eta Eguberrietako abestiak kantatuz. Akaba-

zkeo, luntxa izanen da Elutsa ostatuan.

#### Bortzrietako gaztetxoaren korua

Giltzarri Abesbatzak 9 urtetik aitzinerako gaztetxoaren korua sortu nahi du bortz herrietan, eta horretarako bilera egingen du Lesakako Eskol-Tiikin abenduaren 23an, 18:30ean hasita. Interesatua dagoen guztiei joateko gonbidapena luzatu die Giltzarri.

**TALERRAK**  
**ALMANDOZ**

- Mekanika
- Elektrizitatea
- Kerrosaria
- Kamioiak
- Ibilgailuak
- Furgoneta - 4x4

Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032  
Beneria, 18 • Alkataga Ind. • LESAKA

**carroba**  
gintzaga okragia

1.500.000.000  
www.carroba.net

**PIKABEA**  
harategia janariak

7 BERA • 948 931 284

**ZJ**  
**Zalain**  
jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa s/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA



## ARANTZA

### Olentzeroren inguruko ekitaldi guztiak hilaren 24an egingen dira

Azken urteetan Eguberri Egunean jende gutti biltzen zelako egin du aldaketa Guraso Elkarteak

#### Nerea ALTZURI

Eguberrietako datak izateko gero eta guttiago falta da. Heldu den astean Gabon eta Eguberri Egunak dira. Hori dela eta, gure herrian Euskal Herriko bertze txokoetan bezala, Olentzero menditik jautsiko da eta ikazkinak egonaldi ederrak egingen ditu. Aurten Guraso Elkarteak aldaketa bat egitea erabaki du: ekitaldi guztiak hilaren 24an egingen dira. Goizean herrian kalejira izanen da Olentzeroekin, soinulari eta kantari karriz karrika ibiliko dira. 16:30etik aitzinera, berri, herriko plazan bilduko dira eta kantuan eta aulki-dantzan ariko dira. Berendu batekin akabera emanen zaio egunari.

#### Mus txapelketa hilaren 25ean

Ekaitza Elkarteak antolatuta, Eguberrietako I. Mus Txapelketa jokatuko da Eguberri Egunean, hilak 25. 18:00etan

hasiko da txapelketa eta sari ederrak izanen dira: lehen bikotearentzat Eguberrietako zare bana eta bigarren bikotearentzat gazta, ardo eta txanpainarekin osatutako lote bana.

Bertzalde, urtarrilaren 2rako pilotari buruzko bideo emanaldi bat antolatu du Ekaitza Elkarteak, baina horri buruzko xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

#### Antzerkiak igandean

Azken asteetako prestakuntzak merezidu, bai. Igantzi eta Etxalarako eskolako umeek baidute dagoeneko eskolako neska-mutikoen antzezlanen berri, asteazkenean euren aitzinean egin baitzituzten. Larunbat arratsaldean, ordea, eskolako gimnasioan, gainerakook antzerkiak ikusteko aukera izanen dugu. Animzte bada! Zarearen zozketa ere orduan egingen da.



ARGAZKIA: LEGARRA

#### Bordaxulo baserria erre da

Azaroa agurtzeko ezbeharrak izan genuen herrian. Eguzkialdean dagoen Bordaxulo baserriko teilatu eta goiko solairuko zati puska ederrak hartu zituen sute batek. Zoritxarra da herriarentzat, baita jabearentzat ere. Azken aste-buruetan garbiketa lanetan ari dira. Ea ez den horrelakorik berri gertatzen.

#### Udalaren egoera ekonomikoa

Azken urte hauetan Udalak inbertsio handiak egin ditu. Horiek defizita handia ekarri dute eta Nafarroako Gobernuak %100ean ez duenez behin ere diruz laguntzen, Udalaren egoera ekonomikoa ez dela egokiena ohartazi du Udalak. Urte akabera baino lehen planifikazioa eta diagnosi lana egin beharra da eta horren baren, Udaleko ekonomia aztertzekeo puntua landuko da. Egoera ekonomiko zailaren aitzinean, eta hurrengo urteko aurrekontuei begira, ekonomilari eta soziologo baten azterketa osatua egingen dute.



ARGAZKIA: IRUNE ETA ITSASO ELIZAGOEN

**Umorea eta besta Zahar Txokon**  
Zahar Txoko 43 bazkaltiar bildu ziren abenduaren 7ko urte akaberako bestan. Giro ederrean pasatu zuten eguna, eta Irune eta Itsaso Elizagoien Etxalarako musikariek arratsaldea alaitu zuten.

#### Bortzirietako gaztetxoaren korua

Giltzarri Abesbatzak 9 urtetik goitiko gazte-

txoen korua sortu nahi du Bortzirietan, eta horretarako bilera egingen du Lesakako Eskol-Ttikin hilaren 23an, 18:30ean.

**iparra**  
Bad Iparragorri Alzai FISIOTERAPISTA  
Bikarretako misak, Kardiokinesia, Berrantzezko Berrantzezko Olinpikoa  
00 33 559 48 19 32

**MARTIRO**  
Martiko  
Pol Zain, s/n  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Martikorekin zu zeu sukaldari.  
ABENDUAREN 13 eta 20an (larunbata) **DENDA IREKIA**  
9:00etatik 13:00etara

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
**ATERPE**  
ALBERGEA · JATETXEA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
Agardotegia jatetza  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA

## ARKUPEAK

# 820 bazkide elkartu dira Arkupeak-en urteko azken bestan

Elkarteko sei lagun omendu dituzte

## ttipi-ttapa

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak bere urte akaberako besta egin zuen azaroaren 22an, Donezteben. Baztan-Bidasoa eskualdeko 3.600 bazkide inguru ditu elkarteak eta horietatik 820 elkartu ziren Doneztebeko bestan. Aitzineko urtean 700 lagun bildu ziren; beraz, aurten, gehiago.

Bertze urteetan bezala, omenaldi besta izan zen, eta aurten hildako bazkideak gogoran izan zituzten. Jesus Golaraz Doneztebeko apezak eman zuen meza eta Basilio Sarobe, Ramon Apezetxea eta Francisco Perez Iruñeko artzapezpikuaren laguntza ere izan zuen. Bittor Elizagoien bertsolariak ere parte hartu zuten elizkizunean, zenbait bertso kantatuz.

Iruñea eta Tuterako artzapezpiku izandako eta irailean hildako Jo-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Sei omenduak oroigarria jaso ondotik, ekitaldian parte hartu zuten kargu publikoekin.

se Maria Zirardari ere omenaldia eskaini zitzaion elizkizunean. Hala, Eusebio Maritorea, Felipe Ganboa, Jose-txo Oronoz, Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek hildako artzapezpikuari eskainitako zapela, oroigarria eta makila eman zizkioten gaur egungo artzapezpikuari. Francisco Perezek berak ere jaso zuen txapela.

## SEI OMENDU

Meza ondotik, kiroldegi aldera jo zuten bazkideek, bazkaltzera. Aitzinetik, halere, elkarteko hainbat kidek omenaldia jaso zuten: Milagros Apezetxea goizuetarrak, Salvador Arotzena doneztebarrak, M<sup>a</sup> Dolores Oronoz elizondarrak, M<sup>a</sup> Angeles Altzugarai narbartearrak, Micaela Etxeberria iturrendarrak eta M<sup>a</sup> Jesus Zabala doneztebarrak.

Seirek oroigarria, txapela eta makila jaso zituzten.

Ekitaldian izan ziren, bertzeak bertze, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria.

Bazkalondan, dantzaldia izan zen Jalisko Band taldearekin eta ilundutakoan berriz ere etxeruntz abiatu ziren autobusak.

## LANA

## Irailean baino 200 langabetu gehiago daude eskualdean

## ttipi-ttapa

Azken 20 urteotako daturik okerrenak. Izan ere, azaroan nabarmen goiti egin du langabeziak Nafarroa osoan, %10,16, baina Nafarroa osoko bulegoen artean, Doneztebekoa da langabeziaren igoerarik bortitzena jasan duena. Izan ere, eskualdean kasik %18 igo da langabezia eta 120 lagun gehiago daude lanik gabe. Urri hondarrean 670 ziren izena emandako langabetuak eta hilabete beranduago, 790 ziren, azken 20 urteotan izan den kopururik haundiena. Bi hilabetez, irail hondarretik azaro hondarera kasik 200 langabetu gehiagok eman dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan eta 591tik 790era pasatu dira. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 343 kontratu gauzatu ziren azaroan, eta horietatik 37 bertzerik ez ziren muga gabeak izan. Adina eta sexuari dagokionez, ia tarte guzietan goiti egin du langabeziak. Ohikoa denez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak eta azaroan 394 langabetu daude. 25 urtetik goitiko gizasemeen artean, berriz, 296.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>↳ Langile autoonomaok</li> <li>↳ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>↳ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>↳ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>↳ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>↳ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>↳ Kontabilitateak</li> <li>↳ IVA eta IRPF</li> <li>↳ Errenta aitortpenak</li> <li>↳ Elbaritasun eta jubilatze espedienteak</li> <li>↳ Bidegarritasun planak eta aumekontuak</li> </ul>
---	---

artekari@artekari.com

**LESACA:** Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Villa, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

## ESIP

Energia Berriztagarrien Instalazioak eta Inbentarioa

**Eguzki-energia termikoa**  
 • Kontsumoko ura bermeak  
 • Berogailuak  
 • Igortze-unitateko ura bermeak  
**Eguzki-energia fotobolaitikoa eta haize-energia**  
 • Elta bermeak elektrifikazioak  
 • Bata nagusiak elektrifikazioak  
 • Bata  
**Biomasa** • Pellets guturrak

ALTAIRU  
 www.esipcenter.com  
 info@esipcenter.com  
 T eta F: 948.564.024  
 Mug: 609.74.52.25

## BORTZIRIAK

### Konpost makina gehiago banatuko dira Bortzirietan hurrengo urtean

Interesatuak Mankomunitatera deitu beharko dute



#### ttipi-ttapa

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak 108 familiei eman dizkie aurten konpostagailuak, etxean konposta egiteko eta ahal den neurrian, sortzen den zabor organikoaren ongarri bilaka dezaten. Arantzan 13 familiak hartu dute, Beran 28k, Etxalarren 18k, Igantzin 29k eta Lesakan 20k. Azaroaren 24an Etxalarren egindako bilkuran jaso zituzten azalpenak egitasmoan parte hartuko dutenek, kanpainaren berri jasotzeko –argazkian–. Izarbeibarko Mankomunitateko Oskar Rubio teknikaria ere bertan izan zen, han egindako esperientziari buruz solasteko. Horrez gain, konpostagailua eskuratuko zuten familientzako klase praktikoa izan zen, horietako aunitz izan baitziren ekitaldian.

#### LEHENBIZIKO FASE ARRAKASTATSUA

Aurten egin den lehen saiakera honek izan duen arrakasta ikusita, heldu den urtean berriz ere konpost makina gehiago banatuko ditu Hiri Hondakinen Mankomunitateak bortz herrietan, oraingoan Espainiako Gobernuaren laguntzarekin. Horretarako izena emateko epea zabalik dago eta interesatuak Mankomunitatera deitu beharko dute (948 635254) urtea amaitu baino lehen.

**max** <sup>+</sup>  
cuenta | kontua

%  
U.T.B.

Udazkenean  
ere erortzen  
ez den  
interesa

**ERABILGARRITASUNAREKIN  
ETA KOMISIORIK GABE**

**Abenduaren 31 arte**  
Gehienezko zenbatekoa 10.000€  
Interesa %5 U.T.B. (%4,889 nominala).  
Urriaren 1etik abenduaren 31 arteko inbentarioarako.  
Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxienezko zenbatekoa: 2.000€.  
Ohiko ordainua: %3,25 U.T.B. (%3,203 nominala).  
Helbideratasak ez dira onartzen.

## SUNBILLA

# Abenduaren 24ko eguerdian ailegatuko da Olentzero herrira

14:30ean egingen zaio ongi etorria Allidiko bidean

## Jaione OTXANDORENA

Urtero bezala, abenduaren 24an Olentzero Eukal Herriko txoko guztiak bisitatzera etorriko da. Gure herrira eguerdiko 14:30 aldera iritsiko da Allidiko bide ondora eta bertan itzarongo diogu guztiak berarekin batera Eguberrietako kantak abes-tuz herriko itzulixka egiteko.

Behin herriko itzulia bukatuta, Guraso Elkarteak antolatuta, Ulibeltzak Elkartearen berrendua izanen da eta Olentzerok opariak banatuko ditu haur eta gaztetxoaren artean.

## Gazteen eskea

Olentzero egunean protagonista nagusiak txikiak baldin badira, biharamunean, Eguberri Eguneko arratsaldean mutil gazteek hartzen dute lekukoa, eta Sunbillan aspalditik ohitura den bezala, herrian barna eskean aterako dira. Behin he-



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

**Ilusioz Olentzeroren zain daude dagoeneko neska-mutikoak, eta horregatik, aurten ere ongi etorri beroa egingen diote hilaren 24an.**

rriko itzulixka akituta, afaldu eta baserri berreri eskean ibiliko dira goizaldera arte. Egun horretan ateratzeko lehendik izena eman behar da Itturburu ostatuan eta horretarako azken eguna larunbat hau, abenduak 20, izanen da.

## Dantzaldia Urtezahar gauean

Garai batean, Ulibeltzak Elkarteak afaria antolatzen zuen Urtezar egunean elkartearen. Baina ohitura hori bere horretan gelditzen orain urte batzuk. Halere, zenbait kuadri-

llek oraindik Urtezahar gaua elkartearen afalduz pasatzeko ohitura dute eta aurten ere horrela izanen da. Dena den, giroa alaitzeko Ulibeltzak Elkarteak musika paratuko du: Agezalde akordeoilariarekin dantzaldia izanen da.



## PERTSONAIA

Aitor APEZTEGIA

## Hirugarren Nafarroako Oilagor Txapelketan

Abenduaren 20an Aitor Apeztegiak Nafarroako Oilagor Txapelketa jokatu zuen Sabaizan. Joan den urteko emaitza berdintzerik ez zuen lortu, iaz txapelkun izan baitzen. Aurten txapelketaren baldintzak ez ziren berdinak, aurten hiru oilagor ahalik eta denbora guttienean ehizatzea baitzen helburua eta Aitor hirugarren iritsi zen helmugara. Hala ere, lortutako emaitzarekin kontent dagoela adierazi digu Aitorrek. Zorionak, beraz, gure partetik!!

**COLCHONES ATSEDEN**  
KOLTZOI FABRIKA

Zure ametsen fabrika

**ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN**  
Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

**BASIC PLANA:** Koltxoia + burukoia: **jaso zure oparia**  
**MEDIUM PLANA:** Koltxoia + somierra + burukoia: **%5eko deskontua**  
**PLATINUM PLANA:** Koltxoia + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoia: **%10eko deskontua**  
**GOLD PLANA:** Viscolaxtic Koltxoia + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoia + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

**12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina**  
[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)  
 Aprobetxatu promozioa, 2009/01/31 arte

Eta finu guztiak gure berrito prezioetan, lantegiko prezioetan

**Eguberri eta urte berri on!**

Inñua-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Inñua-Huesca errep. • 948 346 000 • Inñua-Huesca • Inñua-Huesca, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA



# AURREKONTU GUZTIETARAKO

Zure bainu-gela, sukalde, terraza edo zure etxe oso-osorako, **Alkain** prest daukazu beti Hondarribian zure gustu, ideia eta aurrekontuetara egokitzeko.



Multzo osoa **315€\***  
(Pareta-argia + ispilua + konketa + altzaria)

Euskaraz  
badakigu



Multzo osoa **360€\***  
(Altzaria, 70x35 + konketa + ispilua, 50x80 +  
pareta-argia)

\*Prezio hauek 2008-12-31 arte daude indarrean

 **alkain**  
zeramikak eta bainuak  
C/ Amutalde, 21 • 20280 Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54  
[www.alkain.com](http://www.alkain.com)

## DIRULAGUNTZAK

# Espainiako Gobernuak 4,5 milioi euro iragarri ditu eskualderako

Urtarrilaren 24a baino lehen aurkeztu behar dituzte Udalek proiektuak

## ttipi-ttapa

Krisi ekonomikoari aitzin egiteko eta bide batez, langabezia murrizteko asmoz, Espainiako Gobernuak dirulaguntzak banatuko ditu espainiar estatuan. **Ttipi-Ttapa**k hartzen duen eremuko udalengan, zehazki, 4.670.542 euro banatuko dituela iragarri du. Nafarroan guztira 107.232.000 milioi banatuko dira, eta estatu espainiarrean 8.000 milioi euro.

Dirulaguntza hau jasotzeko, urtarrilaren 24a baino lehenagotik aurkeztu beharko dituzte udal, kontzeju eta mankomunitateek euren proiektuak. Horrez gain, kontratatzen diren langileak langabetuak izatea ere exijitu du gobernu espainiarrak.

Bertzalde, finantzazioa lortzeko 2009an egin beharko dira obrak eta 2010eko lehendabiziko hiruhilekoan justifikatu beharko dira egindako lanak. Hale-

UDALERRIAK	GEHIENEZKO LAGUNTZA
ARANO	22.478 €
ARANTZA	114.688 €
ARESO	50.973 €
BAZTAN	1.388.827 €
BEINTZA-LABAIEN	45.663 €
BERA	652.025 €
BERTIZARANA	117.166 €
DONAMARIA	74.335 €
DONEZTEBE	269.376 €
ELGORRIAGA	38.760 €
ERATSUN	29.734 €
ETXALAR	141.768 €
EZKURRA	32.920 €
GOIZUETA	144.245 €
IGANTZI	107.255 €
ITUREN	84.423 €
LEITZA	511.319 €
LESAKA	490.257 €
OITZ	27.256 €
SALDIAS	21.239 €
SUNBILLA	117.166 €
URDAZUBI	61.592 €
URROTZ	32.389 €
ZUBIETA	54.689 €
ZUGARRAMURDI	39.999 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.670.542 €</b>

re, onartutako kasuetan, sei hilabete gehiago izanen dituzte udalek finantzazioa justifikatzeko.

## HERRIKO AZPIEGITURA LANAK FINANTZATZEKO

Proiektu horiek herriko azpiegiturak hobetzeko izan beharko

dute: espazio publikoak konpondu edo zaharberritu; errepideetan hornidura eta azpiegitura lanak egin; saneamendu, argiztapen edo telekomunikazio sareetan obrak egin; oztoko arkitektonikoak kendu; turismoa indartu; suteen arriskua saihestu... Proiektu bakoitzak ezin izanen du 5 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua eduki.

## URTARRILAREN 24A BAINO LEHEN

Dirulaguntza hau jasotzeko deialdia abenduaren 10az dago zabalik, eta aipatu bezala, urtarrilaren 24an bukatuko da eskaerak egiteko epea.

Ondoko taulan, Espainiako Gobernuak herriz herri eskualderako zenbateko laguntza proposatu duen agerida. Baina gehienez jasotzeko kopuruak dira eta biztanleriaren arabera.

## ERREPIDEA

## N-121 Arako ordainsaririk ez duela proposatu dio Aralarrek

## ttipi-ttapa

Azken asteetan zenbait hedabidetan agertutako informazioa argitzeko, Baztan-Bidasoako Aralarrek ukatu egin du N-121A eta N-1 errepideetan edo A-15 autobidean bidesaririk jartzeko proposamenik egin duenik. Bidesaria autobidean eta N-121An paratzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa dela nabarmendu du Aralarrek, hauda, EAJ eta EArena. Aralar, bere aldetik, autopistetan bineta soziala paratzearen aldekoa da, A-8 eta AP-1ean, ez, ordea, N-121An. Suitzan, adibidez, erabiltzaileek 25 euro ordaintzen dute urtean, nahi adina ibiltzeko. Hori ibilgailu arinen kasuan izanen litzateke, eta 3,5 tonatik goitikoetan, orain arteko beharpen sistemarekin jarraitzea proposatu du Aralarrek.

**ANZABAL**  
AGENTZIA



- Zurich Aseguruen Autok, etxebizitza, stripu eta bultzatze aseguruak
- Lan aholkularitza Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, bontzi, preu, etabi... salmenta eta alkatuek
- Gestoria Birgailuen transferentziak, giletzeko karmelaren bantzea eta etxeen gaiko gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

**arkitektoak**  
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea • 948 581 931  
BERA - Eztegarra, 8 behea • 948 625 232

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

# Urteko azkeneko hilabetean atera du Nafarroako Gobernuak 2008ko dirulaguntza eskatzeko deialdia

Hasieran 310.000 euro agindu arren, azkenean 240.000 euro banatuko ditu

### ttipi-ttapa

Euskarazko hedabideendako diru saila desblokeatu du Nafarroako Gobernuak eta horrela, hedabideek aurreikusitakoa baino 70.000 euro guttiago jasoko dituzte; guztira, 240.000 euro. Baina artean konpondu gabe segitzen du euskarazko hedabide aunitzek aitzinera segitzeko duten arazoak. Hala, arazoamahi gainean jarri eta hitz egiteko prest daudela adierazi diote hedabideek Gobernuari. Manifestu bat ere sinatu dute, euren kezka eta beharrak adieraziz.

«Azkenean banatuko dena, nahikoa izatetik oso urrun dago», dio manifestuak. Izan ere, 240.000 euroko poltsatik, %75 inguru izanen da euskarazko hedabideentzat, euren aurrekontu osoaren %6,6. Aldi berean, dirulaguntze-kin gertatu dena «onartezi-na» dela iritzi diote: «urte hasieran diru kopuru bat iragarri, hil batzuk geroago kopuru hori zerora murriztu, azkenean iragarritakoaren %77 banatze-ko». Hedabideen egunerokotasuna kolokan jarri izana «errespetu falta handia» dela ere salatu dute.

Egoera honetan, hedabideek euskararen normalizazioari ekarpen handia egiten diotela-eta, eguneroko lana «lasaitasun eta duintasun» baldintza minimoetan gartzeko hitzarmena eskatu diote Gobernuari. «Elkarlanean aritzea da ataka honetatik atera eta alde biotarako onargarria ez ezik onuragarria ere izan daitekeen akordio batera iristeko bide bakarra».

**Berria**  
 Plan de Pensiones RGA  
**Super Seguridad**  
 Plan de Previsión Asegurado RGA  
**Garantizado**

Etorkizun oparoa segurtatzeko  
**jar zaitez**  
**Plan positiboan**

nire aukera

Rural Kulturaren **Pentsio Planak**: zure etorkizuna gure Planetan dago

NAFARROAKO ERREAL SUTELA

## MALERREKA

## Sentsibilizazio Astearen barne, hainbat ekitaldi larunbatera bitartean

Larunbatean banatuko dira inmigratioari buruzko ipuin lehiaketako sariak Iturenen

### ttipi-ttapa

Joan den larunbatz geroztik, etorkinekiko sentsibilizazioa lantzeko helburuarekin, hainbat ekitaldi egiten ari dira Donezteben. Sentsibilizazio Astea deitu duten ekimen hau Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Doneztebeko Gazte Burrunba Gazte Taldeekin antolatu dute, Inmigratio Programaren barne.

Hitzaldiak, dokumentalak, ipuin kontalariak, munduko platerak... Larunbata bitarte, inmigratioarekin lotutako ekimen desberdinak izanen dira. Horietako batzuk pasatuak dira, joan den abenduaren 13an, Santaluzia feriarekin baitan egin zen munduko plateren erakusketaren kasu. Baina oraindik badago zerikusita eta zerikasita. Ekitaldi gehienak Donezteben izanen dira, azkenak izanen ezik. Hau Iturenen izanen da.

Asteazken honetan, abenduak 17, *Saharano se vende* dokumentala ikusteko aukera izanen da, eta ondotik solasaldia izanen da dokumentalaren zuzendarietako batekin. Zinemari izanen da, 19:00etan.

Ortzegunean, abenduak 18, Emakume internazionalistak taldeko Begoña Zabalaekin solasaldia egingen da. 19:00etan hasiko da Zinemari eta *Zer suposatzen du etorkina eta emakumea izateak?* gaia landuko da.

Ortziralean, abenduak 19, bi film ikusteko aukera izanen da 18:00etatik aitzinera Zinemari: *La valla de la ver-güenza* eta *Despiertas*.

### IPIUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA ITURENEN

Larunbat honetan, hilak 20, emanen zaio akaberak Sentsibilizazio Asteari. 17:00etatik aitzinera munduko ipuineiburuz ariko da Izaskun Mujika, Herriko Etxean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Baztan-Bidasoan gasbidea paratzeko lanak hasi dira** Iruñdik Lesakaraino heldu den gasbideari segida emateko, proiektuaren lanen hasieraren aurkezpen ofiziala egin zuten azaroaren 28an Donezteben. Lan hauekin, Sunbilla, Legasa, NARBATE, Oieregi, Doneztebe, Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita, Elbete eta Elizondora ailegatuko da gas naturala, eta hala, Lesakatik Elizondora bertze 33 kilometro eta erdiko erai-kiko dira, Espainiako Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioak, Nafarroako Gobernuak eta Gas Navarra enpresak sinatutako hitzarmenari esker. Orain hasi eta hamar hilabete barru lanak akitzea espero da eta heldu den urteko uda aldera gas naturala eskura izanen dute aipatutako herrietako 2.400 familiek eta hainbat enpresek. Lanak lau lekutan hasi dira: Lesakan, Igantzin, Sunbillan eta Donezteben. 8,7 milioi euroko inbertsioa egingen da eta Gobernuak 3,8 milioi euro paratuko ditu.

ria ariko da Izaskun Mujika, Herriko Etxean.

Ondotik, berriz, Malerrekako inmigratioari buruzko Ipuin Lehiaketako sari banaketa eta merienda egingen dira. Aipatzekoa da, inmigratioari buruzko Ipuin, El-karrizketa eta Argazki lehiaketan, ipuinen alorra bakarrik atera dela aitzinera, ez delakoz ez el-karrizketarik eta ez argazkirik aurkeztu. Ha-

siera batean, sari banaketa hilaren 13an Donezteben egitekoa zen, baina tokiz eta egunez aldatu dute. Alde bate-tik, egun horretan paila-zoen ikuskizuna egitekoa zelako Donezteben eta bertzetik, Doneztebeko eskolakoek ez delako lan bat bera ere aurkeztu.

Sunbilla, Ituren, Legasa, Beintza-Labaien eta NARBATEKO eskole-

tako 50 neska-mutikok hartu dute parte ipuin lehiaketan eta horietako batzuk sarituak izanen dira larunbatean Iturenen.

Hamabi sari banatuko dira 6 urtetik 12 urte arte dituzten gaztetxo-arten, sei 6-9 urtekoetan eta bertze sei 9-12 urtekoetan. Lehen hiru sailkatuek joko bana jasoko dute eta hurrengo seiek ipuinak.

# AMEZTIA

Astelehene-tik larunbatera 6:00etatik aitzinera irekia  
Igandetan 9:00etatik aitzinera

**Bokadilloak, razioak,  
sandwich-ak,**

**DEITU 948 450 028ra eta eraman**

**%15 eko DESKONTUarekin**





## MALERREKA

# Medikuen zerbitzua bermatzeko eskatu diote 9 udalerritako alkateek osasun kontseilariari

Osasun sailarekin bildu ziren alkateak abenduaren 12an Iruñean

### F. ETXEBERRIA/ttipi-ttapa

Medikuen zerbitzuan duten gabeziarekin kezkatu daude Malerreka eta Bertizaranan eta horri aterabidea emateko eskatuz Maria Kutz Nafarroako Gobernuko osasun kontseilariaren ondokoarekin bildu ziren abenduaren 12an Malerreka eta Bertizaranako bederatzita udalerritako alkateak. Ezkurra, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien, Urrotz, Zubieta, Ituren, Sunbilla eta Bertizaranako Udalak izan ziren zerbitzua bermatzeko exijitu zutenak.

Izan ere, aspaldion mediku eskasiagatik zenbait egunez herrietako kontsultak itxi egiten dituzte, eta gaixoeak Doneztebera joan behar dute. Horretarako, saldiasarren kasuan, 17 kilometro egin behar dituzte; Ezkurra eta Eratsungoek gehiago, 18 kilometro inguru. Arazoa, beraz, ageriko da.

### HIRU PUNTUKO AKORDIOA

Azaroaren 27an Malerrekako herritarrei arazoaren berri emateko bilkura egin zen Iturenen. Administrazioak aterabiderik eman ezean, arazoak okerrera egingen

duela nabarmendu zen. Hiru puntuko akordio batera ere ailegatu ziren: batetik, eskualdeko udal guztiei herrietan bilkurak egiteko eskatu; bertetik, zonaldeko guztiak bildu eta ahobatezko jarraera adostu; azkenik, herritarren keak bildu eta administrazioarengana jo zerbitzuaren murrizketarekin kekatuz eta arazo larri honi irtenbidea emateko eskatuz.

Horiek guztiak mahai-gaineratu zituzten hilaren 12an Osasun sailarekin egindako bilkuran.

### SINADURA BILKETA

#### EZKURRA ETA ERATSUNEN

Egoera salatuz eta Ezkurrako medikuen kontsultak lehen bezala funtziona dezan eskatuz, Udalak kexa formalak aurkeztu du 89 herritarren sinadurarekin. Eratsun ere bildu dituzte sinadurak.

#### Ezkurrako eskola zaharra eraberritua

Ikasle eskasia zela eta, 1999an itxi zituen Ezkurrako eskola zaharrak ateak. Geroztik, urteekin hondatzen joan

da. Baina horri erantzunez, Udalak zaharberitzea erabaki du. Sozietate batekin adostasun batera ailegatu da, eta horrela, beheko solairua berritu egingen da, etorkizunean eskola bihurtadina. Trukean sozietate horrek bi etxebizitza eraiki ahal izanen ditu.

#### Abiadura murrizteko neurriak Ezkurrari

Ezkurra parean, autogidariekin hartzen duten abiadura haundiaz kezkatuta, neurriak hartuko


ditu Udalak. Helburua oinezkoen arriskurik ez sortzea da, eta horretarako, abiadura murrizteko oztopoak paratuko dira errepidean, eskolaren parean bat, eta udaletxearen azpian, bestea.

#### Obrak Beintza-Labaienen

Urtea akitu aitzinetik hainbat obra egingen dira Beintza-Labaienen. Horietatik batzuk dagoneko egin dira eta berzte batzuk egun hauetako batean akituko dira.

Batetik, Herriko Etxean konponketak egin dira. Teilatua egoera txarrean zegoen eta berritu behar izan dute. Horrez gain, udal bulegoetan berokuntza-sistema ere paratu dute. Azaroaren erdialdera akitu zituzten lanak eta guztira 52.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Nafarroako Gobernuak lanak subentzionateko %60ko dirulaguntza emanen du.

Bestalde, Beintzan plazari estalkia paratzen ari dira. Egurrezko teilatua egiten ari dira eta lanak egun hauetako batean akitzea espero da. Lan hauen aurrekontua 116.000 eurokoa da eta horren %70a Gobernuak bideratuko du.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

#### Garai bateko zubia bistan utzi dute Ezkurrari

Herriko besten harira, hiru langile kontratatu zituen Udalak garbiketa lanak egin eta herria edertzeko. Bada, lan horien ondorioz, herria erabat aldatu da: paretak zein karrika gehienak guztiz garbiak gelditu dira, eta gainera, zubi bat gelditu da begi-bistan. Argazkiko zubia da agerian utzi dutena, eta ikusten denez, antzinakoa izateaz gain, balore artistikoa duena izan liteke.

**BELARRA** JATETXEA

**ttipi ttapa**

☎ (0034) 948 635458

Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN** GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862



443€



MININOTE 2133 C7 M 1GB 120GB BT WVHB 8.9

Prozesadorea ULV VIA C7®-M  
ULV 1,60 GHz, 128 KBko L2 katxea,  
800 MHz FSB 1GB RAM,  
120 GBko disko gogorra



363<sup>80</sup>€



ASUS EEE PC 901 WINDOWS BLANCO 8.9 W

Intel Atom - 1.6 GBeko prozesadorea,  
1024 MB RAM,  
12 GBeko disko gogorra



499€



TOSHIBA SAT, PRO L300 15.4 T5750 2GB 120GB VHB

Prozesadorea Intel Core 2 Duo T5750  
2.0 GHz , FSB 667, 2MB L2 katxea,  
RAM 2.048 Mb DDR2 RAM (667  
MHz), disko gogorra 120 Gb  
Serial ATA



548<sup>60</sup>€



HP 67355 RM70 15.4 2GB 160GB VHOME-LINK1018

Prozesadorea AMD Turion™ X2  
Dual-Core Mobile Processor RM-70,  
2.0 GHz, 1 MB 2GB RAM L2 katxea,  
disko gogorra 160 GB



571€



ACER TMS330-162G32MN (LX.TRT0X.076) T1600 2

Prozesadorea Intel Celeron T1600  
1,66 Ghz, FSB 667Mhz, L2 katxea  
1Mb, 2048 MB RAM DDRII, disko  
gogorra 320 GB



610€



ASUS X50GL T5800 4 320 15 WEBCAM

Prozesadorea X50GL-AP005C,  
Intel Core2 Duo T5800, 4GB RAM  
DDR2, disko gogorra 320 GB SATA



666€




HP 67305 T5670 15.4GB 250GB VHP MOBILE TRV

Prozesadorea Intel Core 2 Duo  
T5670, 1,8 GHz , 2 MB L2 katxea,  
800 MHz FSB, RAM DDR2 2 x 2048  
MB, disko gogorra 250 GB



731<sup>70</sup>€



P. BELL MI45 M 001SP CORE2DUO P7350 4GB ST

Prozesadorea Intel Core 2 DUO  
P7350 4GB,  
disko gogorra SATA 320GB  
DVD-D+R9, 15.4" WXGA GLARE,  
WEBCAM



816<sup>60</sup>€



ACER 6930G-584G50MN (LX.AUU0X.231) CORE2DU

Prozesadorea Intel Centrino 2  
Duo T5800, 2 GHz, FSB 800MHz,  
2 MB L2 katxea, disko gogorra 2 x  
250 GB

Ordenagailu eramangarrien katalogoa [www.appinformatica.com](http://www.appinformatica.com)

**Ordenagailuen konfigurazioa zuk eskatu bezala 300 eurotik hasita**  
**ZERBITZU TEKNIKOA 35 € LAN-ORDUA**  
Sekulako eskaintzak kanpoko-disko eta multimedia-disko gogorretan



47€

CANON PIXMA MP190

Inprimagailua / kopiagailua / eskanerra  
erresoluzioa 4800 x 1200 ppp, bi tinta kartutxo:  
beltza eta kolorekoa, eskanerra 600 ppp



55<sup>50</sup>€

EPSON STYLUS XS105 + LPI

Inprimagailua / kopiagailua / eskanerra  
eskanerra 1200 x 2400 ppm



67<sup>70</sup>€

HP DESKJET F2280

Inprimagailua / kopiagailua / eskanerra  
Inpresio erresoluzioa 1.200 ppp (mono)  
4800 x 1200 ppp (koloretan)

Eskaintza gehiago [www.appinformatica.com](http://www.appinformatica.com)

SAMSUNG

Samsung  
TB monitorea



435<sup>60</sup>€

SONY


Sony Bravia  
TB monitorea



225€



292<sup>60</sup>€



569<sup>40</sup>€



1305<sup>20</sup>€



152<sup>80</sup>€

TOMTOM ONE  
Espainia Portugal



185<sup>60</sup>€

TOMTOM ONE XL  
Espainia Portugal



191<sup>30</sup>€

TOMTOM ONE Europa 22



232<sup>60</sup>€

TOMTOM XL Europa 31

53€



MARKO DIGITALAK

CENOMAX  
F700A 7" LITE ON

17<sup>20</sup>€



KODAK cristal 10"

105<sup>50</sup>€



DIFFERO 7 + TDT

42<sup>50</sup>€



MP4 DIFFERO CHESTE 2GB  
MINISD IRAKURGAILUA

43<sup>80</sup>€



X-MEMORY MP4 2.4 4GB  
TACTIL-MICROSD

71<sup>70</sup>€



PMP DIFFERO 3.5 CINEMA 2GB

149<sup>90</sup>€



APPLE REP MP3  
IPOD Nano 8 GB berdea

174€



PSP SLIM BELTZA

148<sup>50</sup>€



NINTENDO DS

239<sup>40</sup>€



XBOX 360  
LEGO INDIANA + KUNG FU

410€



PS3 80 GB  
DUALSHOCK 3

257<sup>20</sup>€



Wii + SPORT PACK

BADITUGU JOKOAK  
KONTSOLA GUZTIETARAKO

APP INFORMATICA BERA

Alkaiaga Industrialdea, Alasta 1  
31789 LESAKA - NAVARRA  
Tel: 948 625 324 - 948 630 575  
info@appbera.com

APP INFORMATICA DONEZTEBE

Nagusi Kalea 4,  
31740 DONEZTEBE - NAFARROA  
Tel: 948 451 752 - 609 418 097  
zarbo@zarbo.net

APP  
informática  
.com

## DONEZTEBE

## FLASH

# Gizalegezko jokabideak bultzateko araudia onartu du Udalak

Halako araua onartu duen inguruko lehen herria da Doneztebe

## ttipi-ttapa

Gizalegezko Jokae-rak Bultzatu eta Espazio Publikoak Babesteko Ordenantza onartu du Udalak. Eskualdean halako araudi bat onartzen duen lehen herrietako bat izan da Doneztebe, beti ere, herria hobetzeko helburuarekin ebatzitakoa. Gizalegezko jokabideak arautu eta askatasuna aitortu nahi dira, bertzeenganako errespetuan oinarrituz. «Gizalegezkoak ez diren portaerak guttiengo batenak dira, baina guztienak diren ondasun eta espazioak kaltetzeaz gain, bizikidetzarako eraso dira», dio udal ordenantzak.

41 artikuluz osatutako araudia egin du Udalak, eta apirilaren 25ean onetsitako Doneztebegizalegearen alde planaren barne dago. Ordenantzan, bertzeak bertze, herritarren portaeraren printzipioak aipatzen dira, eta ondasun publikoen edo espazio publikoetan dauden ins-

talazioen babesa, pintadak egiteko debekua, zuhaitz, landare eta parkeen babesa eta pape-rontzien zein iturrien erabilera zuzena arautzen dira.

Arau-haustearinak, larriak eta hagitz larriak bezala sailkatu ditu Udalak, eta horietatik hasita, isunak aurreikusi dira.

Egindako arau-haustea-ren araberakoak dira. Arau-hauste arina egin dutenek 60 eurotik 750 eurora bitarteko isuna jasoko dute; larriek 750 eurotik 1.500 eurorainoko isuna eta hagitz larriek 1.500 eurotik 3.000 eurorainokoa –kasu honetan, batzuetan 601 eurotik 2.055 eurorainoko

isuna aurreikusi da—. Dena den, aipatu, herriaren edo ingurumenaren alde lan egin beharko lukezela araua hautsi dutenek, eta horren ordez, hartuko diren azken neurriak izanen dira isunak. Guztiaren gainera, auzia elkarrizketa bidez konpontzen saiatuko direla ere adierazi du Udalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Doneztebetik Iruñera Niko eta Ibai animatzera

Herriko jarraitzaileek Portland San Antonio taldean ari diren Niko Minda-gia eta Ibai Meokirekin argazkia atera zuten abenduaren 3an Iruñean, Al-meriaren kontrako partidaren ondotik. Ez da nolana hiko marka, Donez-tebe bezalako herri ttiki batek Asobal ligan bi jokalarizatea.

## Eguberriak gainean hainbat ekitaldi

Udalak eta herriko ber-tze elkarteek hainbat eki-taldi antolatu dituzte Egu-berrien atarian. Abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra, 12-13 urte arteko-entzako **jolas-parkea** paratuko da. 16:00etatik 20:00-etara egonen da zabalik eskolako fron-toian eta bi euro ordain-du beharko dira horretarako. Dohanik joateko aukera ere izanen dute batzuk, Doneztebarrak Merkatarien Elkartea par-kerako 50 sarrera zoz-keztatzen ari baita.

Merkatarien Elkartea **fa-txada eta balkoien le-hiaketa** ere antolatuko du Eguberrietarako. Apaingarriekin dekoratu-tako etxe-aurrealde edo balkoiak sarituko dira. Kontsumoa murrizteko, berriz, Udalak aurten Eguberrietako apaing-arrietan aldaketak egingen ditu. Orain artekoak zaharkituak gelditu direlako eta aunitz kontsumi-tzen dutelako berriak era-biliko dira Eguberrietan. **Kontsumo baxuko ar-giak** erabiliko dira, eta ikusgarriagoak.

## Errekako zozketa

Bertze urteetan bezala, Erreka Kirol Elkarteko ki-deek Eguberrietako sas-kia atera dute zozketa-ra. Zozketa larunbat honetan egingen da, hilak 20, 13:00etan egoitzan. Saski osatua da aurtengo ere: mendi bizikleta, mikrouhin labea, telebis-ta, likuadora, *sandwich*-era, argazki makina, turroiak, urdaiazpikoa, ardoa, likoreak... Egun berean, Mendiaren Egu-na egingen da. 7:30ean mendi ateraldia egingen dute Leurtzako zirkora eta bueltan, poteoaren on-dotik herri bazkaria egi-nen da Kasino elkartearen.

**APARAN, S.A.**  
BRUXOLAIA eta ZULAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarniak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 060  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**Pitti**  
estabesleak  
Tel: 616 513 491

Mendiaren egoiza, 34 ZUBIETA



## ONDAREA

# Kultur ondarea zaintzeagatik sei sari eta aipamen banatu ditu eskualdean Cedernak

Baztan, Etxalar, Zubieta, Goizueta eta Lesakako entitateek jaso dute

### ttipi-ttapa

Nafarroako Mendialdeko ondare kulturala zaindu eta berreskuratzearen alde egindako lanagatik, hainbat sari eta aipamen banatu ditu Cederna Garalur Elkartek aurtengo ere, Leader+ programaren barne. Azaroaren 26an Lesakako Burdinaren Etxean egindako ekitaldian egin zen sari banaketa. Aurtengo edizioa bortzgarrena izan da, eta hainbat udalerritako 11 proiektu saritu ziren guztira: 6.000na euroko zortzi sari, 2.000 euroko aipamen berezi bat eta diru-saririk gabeko bi aipamen berezi. Horrez gain, Muskildako Jone Villanueva eskulangilearen zuzeko erloju bana ere eman zitzaizen sarituei.

Sari-banaketan Luis Garate Cederna Garalur Elkartearen presidentek, Fermin Villanueva Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuko Turismo Produktuak Antolatzeko



ARGAZKIA: TTUPI-TTAPA

**Sari banaketa egunean, sariak eta aipamenak jaso zituzten arduradunak, Cederna Garalur elkarteak eta Nafarroako Gobernuo ordezkariak.**

eta Garatzeko zerbitzuruak, Koldo Erkizia Lesakako alkateak eta Esther Zelaia Cederna Garalur Elkarteko behin behineko zuzendari-genteak hartu zuten parte. Horiekin batera, saria jaso zuten bertze herrietako ordezkariak izan ziren.

Aitzineko urteetan bezala, aldi honetan ere hainbat sari gelditu ziren inguruan.

**6.000 EUROKO SARIAK**  
Eskualdeko bortz entitateri eman zaie 6.000 euroko saria:

**Baztan eta Urdazubiko Done Jakueren Bideko Lagunen Elkarteari,** Azpilkuetako Urrasun auzoko Santiago baseliza birgaitzeagatik. Elkarteko boluntarioek 2007an zaharberritu zuten, XVIII. mendeko eraikuntza-estiloan oinarrituz.

**Etxalarko Udaleri**  
Etxalarlatsa Ola Zaharra proiektuagatik. Turismo produktu berria eskaintzeko, antzinako burdinola berreskuratzen aritu da Etxalarko Udala.

**Zubietako Udaleri,** San Anton baseliza berreskuratu eta birgaitzeagatik. Auzolanean, herriarrek teilatua eta fahxada nagusia berritu zituzten eta ateak zabaltzeko moduan gelditu zen.

**Baztango Udaleri,** Amaiurko gazteluan egin den esku-hartze arkeologikoagatik. Aranzadi Zientzi Elkarteko adituekin eta EHU-UPVko arkitekturen ikasleekin dabilta horretan.

**Goizuetako Udaleri,** Zubimusuko latsarria berreskuratzegatik. Hau ere auzolanean konpondu zuten herriarrek eta badu bere garrantzia, 12 harraska baititu. 1908an eraiki zuten, eta 80. hamarkadan erabili zen azkenekoz. Zaharberritze honekin turismo-baliabide berria sortu dute Goizuetan.

**AIPAMEN BEREZIA**  
Lesakako Udalak ere 2.000 euroko aipamen berezia jaso du, Sumusako atea izeneko proiektuan garai batean herri-rako sarbidea zen ate hori berritzeagatik. Garai hartan, Lesakak hiru ate zituen kanpotik herrira sartzeko eta horien artean bere tokian dagoen bakarra da Sumusakoa.

**Ibon Urtiaga**  
fisioterapia zentroa

- Masaje lasaigarria
- Elektroterapia
- Kirol masajea
- Bizkarreko mina
- Kirol eta lan lesioak

Tfno: **948 250 221**  
**606 266 077**

**Erletokieta kalea 9 behea. 31007. Iruña**

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

## ITUREN

# Gisa guztietako ekitaldiekin gozatu dute herritarrek aurtengo Kultur Egunetan

Aipagarrienak Iturengo arotzari buruzko hitzaldia eta Anje Duhalderen kontzertua izan dira

## Arkaitz MINDEGIA

Ibintza Kultur Taldeak Kultur Egunak antolatu zituen bertze urte batez abenduaren 5etik 7ra. Ekitaldi gehienek jendearen parte-hartze handia izan zuten eta antolatzaileak gustura gelditu dira. Ortziralean *Nor zen Iturengo arotza?* izenburua zuen hitzaldiak hasiera eman zion Kultur Egunei. Andres Iñigok emandako hitzaldian jende aunitz bildu zen eta jendearen harridura ere piztu zuen. Kontu xeble eta interesgarriak ikasi genituen. Berriki hil den Mikel Laboari omenaldi tiki bat eginez, berak ezagutzera emandako *Iturengo arotzak* antarekin amaitu zuen solasaldia.

Larunbatean haurrentzako ekitaldietan jende parrasta bildu zen. Hainbat jokutan parte hartzeko aukera izan zuten: tailerrak, ipuin kontalaria, herri kirolak... Mus txapelketa eta kantu afaria izan ziren eta



ARGAZKIAK: ARANTXA ARIZTEGI

**Neska-mutikoez arreta handiarekin segitu zituzten Goringo Antzerki Taldearen ipuinak.**

azken hau behinik behin giro onean joan zen, ordu tikiak arte.

Azkenik, igandea. Herriko Etxeko Ganbaran Anje Duhaldek emandako kontzertuak eta honen ondotik egin zen luntxak amaiera po-

lita eman zieten Kultur Egunei.

### Zorionak Maika!

Abenduaren 8an Tallan jokatuak XXX. Peñetako herri lasterketan Maika Ariztegik bigarren postua lortu

zuen. 33:13ko denbora egin zuen Maikak.

### Alazne Untxalo bertsotan

Herriko bertsolaria den Alazne Untxalo laugarren gelditu zen Mariano Izetaren omenez

antolatutako bertso sariketako finalean. Azaroaren 29an jokatu zen Elizondon, eta Alazne txapeldunarengandik 17,5 puntura gelditu zen.

### Heldu da Olentzero!

Urteik urtera errepikatzen diren ekitaldiak badira ere, ilusioz eta gogoz hartzen ditugu Eguberriak.

Irrika hori umetxoetan da nabariena. Azken aste hauetan, Olentzero eguna borobila izateko eta opari aunitz ekartzeko entsaiotan ibili dira. Trikitixa, pandere eta kantak hartu eta behin eta berriz kantuan ari dira.

Urtero bezala, bazkalondoan elkartuko dira abenduaren 24an eta baserriar jantziak jauntzi eta haur, guraso eta gazteak etxez etxe ibiliko dira kantuan.

Bide batez, Eguberri eta Urteberri On denei!!



**H. LOPEZ**

FONTANERÍA • ITURGIINTZA  
Santiago 93, Elizondo  
Tel. 948 452 126

## Osagarrien Hilabetea!

Bainuko alfombrak • Bainuko gortinak • Arropa-saskiak  
Bainu-batak • Eskuoihalak • Ezinduentzako osagarriak

**%10** DESKONTUA  
kupoi hau aurkeztuta





## ESKURA EZAZU CLUB FARPLUSEKO TXARTELA ZURE FARMAZIAN

**Galenic Bioplyceal**  
begi ingurukoak  
15 ml



20,00 €

**Eucerin Anti Age**  
Dermo Densifyer  
50 ml



23,00 €

ELER FARPLUS PREZIOA  
20,00 € + 40,00 €

**Mustela estutzea**  
3 unitate



17,50 €

estutzea  
opari

**Kolonia Musti Eau de Soin** harriztagailua  
+ ilaunezko hartatzea opari



15,50 €

**Tensoval confort besoa**  
Unitate 1



39,90 €

**Tensoval confort eskumuturra**  
Unitate 1



39,90 €

**Tensoval Duo Confort**  
gana altukoak besoa



64,00 €

**Ladysystem**  
Unitate 1



58,00 €

**Flash efektuko arpoilak**  
2 ml ko 2 arpoila



3,00 €

ELER FARPLUS PREZIOA  
2 x 4,50 €

**Pastillero zatitzaile**  
eta birrintzailea



6,10 €

**Asteroko pastillerna**  
Unitate 1



13,50 €

**Pedalierra arikatak** egiteko



29,90 €

**Bainurako esponja**  
kirtanarekin



4,90 €

**Nozoair sudurreko tirak**



10 unitate

20 unitate

4,40 €

12,50 €

**Sebamed sapu**  
400 ml eta 200 ml



9,90 €

ELER FARPLUS PREZIOA  
14,90 €

**Ureadin 10%**  
1000 ml



19,90 €

**Isilin larruzaleko ildoen kontrakoa**  
+ divi + Poltsa opari



19,60 €

**Femme + Menocontrol**  
28 pilula egunerako + 28 pilula  
guzuzko



11,50 €

**Femme + Rétenlion**  
D'Eau Pack  
2 x 28 pilula



22,70 €

**Hortzetako haria**  
Unitate 1



2,10 €

**Sonic vibration**  
hortzetako eskula  
power original  
white Gum



9,50 €

**Duplo. Parogencyl control + oparia**  
2 x 125 ml



7,90 €

**Duplo. Fluocaril**  
bi-fluore + oparia  
2x125 ml



7,50 €

**Kukident pro fresh**  
47p



5,90 €

ELER FARPLUS PREZIOA  
2 x 9,90 €

## ARESO

# Euskara mingainean, giro ederrean joan da abenduaren 3a

Euskararen Eguneko ekitaldiei erantzun ona eman diete herritarrek

**Juana Mari SAIZAR**

Euskararen Nazioarteko Eguna herrian ere ospatu zen abenduaren 3an. Eguraldi txarrari aurre eginez, pintxoak, taloak eta Txan magoaren erakustaldia izan ziren eguneko ekitaldirik arrakastatsuenak.

Halere, Guraso Elkareak urtero antolatzen duen herri bazkariaren falta somatu zen aurtengoan, nonbait azken urteetan jende gutxiago elkartzen zela-eta, ez egitea erabaki zuen. Garaia ere halakoa izaten da, jai ugari eta han eta hemen hainbat ekitaldi. Esaerak dioen bezala,

abendua hutsa, erdi jai, erdi gaua.

## Unai Onsaloren garaipen berria

Pilotako III. Eliteko Txapelketako finala jokatu zen Laudion (Arabak) abenduaren 6an, eta bertan izan zen Unai Onsalo herriko pilotaria. Andreuren aurka aritu zen, eta bai finala irabazi ere, 22-6ko markagailuarekin.

Partida borobila atera zitzaion Onsalori, tantoak ongi bukatuz eta fisikoki ongi zegoela erakutsi zuen. Nahiz eta arerio gogor baten aurka aritu, ikusleek gozatzeko partida eskaini zuen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Neska-mutikoez arretaz segitu zuten Txan magoaren ikuskizuna.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

## Sei gazteren Sendotza

Aurten herriko sei gaztek egin dute Sendotza. Elizkizun ederra atera zen, Eliza berritu eta aldreko mahaia berriarekin. Oliteko abesbatza etorri zen kantatzera eta Artzapezpikuaren bisita ere izan genuen. Ondotik 70 lagunek afora egin zuten Pake Toki elkartearen. 1900etik hasi eta gaur arteko argazki bilduma ere ikusgai izan zen.



Añorgatxiki 11 behea  
20018 DONOSTIA  
Tel: 943 368 781  
Fax: 943 368 781  
Mug. 671 073 888  
behetik@behetik.com



**PLATAFORMA JASOTZAILEAK**



## LEITZA

### ‘Geurea ikurrina’ dela aldarrikatu dute herrian egin den ekitaldi nazionalan

Bai Euskal Herriari ekimenak egun guztiko egitaraua antolatu zuen «ikurrinaren defentsan»

#### Asier IMAZ

Bai Euskal Herriari ekimenak *Geurea ikurrina!* lelopean, euskal ikurrak defendatzeko hitzordu nazionala antolatu zuen Leitza abenduaren 13an.

Aldarrikapen jaia 11:00etan hasi zen harrera ekitaldiarekin. 12:00etan herri kirolen herri kirolen goserik zegoenak, ordea, txekorra burduntzian nola egiten den ikusteaz gain, pintxoak dastatzeko aukera izan zuen.

Ekitaldi politikoak 13:00etan hasi ziren. Lehenik, joaldunak eta dantzariak aurrean zirela, manifestazioa egin zuten, ondoren udaletxearen aurrean hitzaldiekin amaitzeko. Bertan, Bai Euskal Herriari ekimeneko arduradunek Euskal Herriari ikurrinak bizi duen egoera aztertu zuten: «Egun euskal ikurrak desagerrarazteko eta atzerriko banderak inposatzeko erabakia gauzatzen ari dira. Batetik, Nafarroa Garaian, Ikurren Legea ezarri ikurrinaren erabilera instituzionala legez kanpo utzi dute. Eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zube-

roan, aldiz, ikurrina balore politikorik gabeko sinbolo folkloriko gisa sustatu dute». Euskal Autonomi Erkidegoaren inguruan, gogoan izan zuten Espainiako Auzitegi Gorenak Gasteizko parlamentuari bandera espainola jartzeko berriki emandako agindua eta PNVk hartutako erabakia, «PSOE eta PPrekin bat egin» duela salatuz.

14:30ean herri bazkaria burutu zuten. Ondoren, Ansa ahizpekin eta Patxi eta konpainiarekin dantzaldia eta erromeria egin zituzten. Kale animazioa erraldioen, buruhandien eta trikitilarien eskutik etorri zen. Aldarrikapen jaiarekin amaitzeko kontzertuak egon ziren Gaztetxean.

#### LEITZARREN BABESA

Ekimenaren sustatzaileen esanetan, herriari ikurrinaren aldeko 150 atxikimendu baino gehiago bildu zituzten. Sinatzaileen artean ikasleak, langileak eta erretiratuak daude, baita in-herriko eta guruko hainbat ezagun ere: Mikel Nieve txirindularia, Jon Kanflanka segalaria, Asier Olaizola, Oinatz



ARGAZKIA : PABLO FEO

#### Mozarten amaitu gabeko lana eskainiko du Jeikik

Jeiki Abesbatzak kontzertua, Mozarten Requiem Meza, eskainiko du Sinfonietta Academica Orkestrarekin batera hilaren 21ean Elizan, 11:45ean. Orkestraren zuzendaria Caroline Collier izanen da eta Abesbatzarena Florencio Iurrtia. Solista bezala ondorengoak arituko dira: Beatriz Lorente sopranoa, Elena Balanute *mezzoa*, Iñigo Casali tenorea eta Alfonso Etxeberria baxua. Musika klasikoa gustuko duen edozeinek hiru obra aukeratu beharko balitu, horietako bat Mozarten Rèquiem Meza izanen litzateke zalantzarik gabe. Mozartek bukatu gabe utzi zuen azken obra ikus- teko aukera egonen da, zortzi zatitan banaturik dagoen obra.



ARGAZKIA : ASIER IMAZ

#### Kontseiluaren ibilbidea ikusgai erakusketan

Euskaraz Baierakusketa zabaldu zuten udaletxean hilaren 10, 11 eta 12an. Hiru egunetan zehar herritarrak eta ikastetxeetako ikasleak igaro ziren bertatik. Kontseiluaren inguruko erakusketan, besteak beste, Amazabal Institutuko DBH 4. mailako ikasleak egon ziren. David Anaut eskualdeko Euskara Zerbitzuko teknikariak lanean jarri zituen euren jakituria neurtu eta zabaltzeko asmoz.

Bengoetxea eta Abel Barriola pilotariak, Mieltxo Saralegi harri-jasotzailea, Patxi Astibia aizkolari ohia edota Xabier Zabalo alkatea. Bai Euskal Herriari eragileen aniztasuna nabarmendu zuen: «25 eragileko zerrendan haur eskola, jubilatuen elkarte, bertsozale talde edota preso taldea aurki daitezke».

#### Onddoak aurkitu eta zorte on!

Taberna, komertzio, denda eta hainbat zerbitzu elkartu dira, herriari zerbitzu hauek eduki- tzeak duen garrantziaz ohartarazteko. Aldi berean, bertako zerbitzuak indartu nahian, ekintza bateratua antolatu dute. Horretarako, zozke- ta bat jarri dute martxan.

Urtarrilaren 5ean Karrape Irratiak aipatuko ditu irabazleak. Sariak, 500, 300 eta 200 euroko hiru erosketa bale izanen dira. Parte hartzeko eguneroko erosketak egitea nahikoa izanen da. Denda edo tabernetan onddodun kajatxoak aurkitu eta bertan izena eta telefonoa jarri eta listo!

gaztelu scl  
iturgintza  
kalefakzioa · saneamendua · gasa  
Telefonoa: 948 510 066 · 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

## GOIZUETA



UTZITAKO ARGAZKIA

70 lagun eta senitartekorekin ospatu zuen Aimarrek Irujoren kontrako garaipen haundia. Argazkian zapeldunarekin daude horietako batzuk.

# Herriaren omenaldia jasoko du Aimar Olaizolak Urtezahar egunean

20:30ean jarri dute hitzordua plazan

## Esteban AROTZENA

2002an eta 2005ean bezalaxe, abenduaren 31 aukeratu dute herrian Aimar Olaizolari ongime-rezitako omenalditxo eskaintzeko. Udalak hartu du bere gain antolakuntzaren ardura, baina lerro hauek idazterokan xehetasunak lotu gabe zeuzkaten Herriko Etxean. Dena den, datu garrantzitsuenak aurreratu ditzakegu: eguna, abenduak 31; lekua, plaza; ordua, 20:30.

Goian aipatu bezala, 2005ean ere Urtezahar Egunean omendu zuten

Aimar. Umore Ona Elkarteak antolatu zuen orduan aurreko hainbat hilabetetan lortutako garaipen haundiak arrazoi hartuz. Orain ere horixe hartu du Udalak kontuan omenalditxo eratzekoan. Kontuan izan behar da, buruz burukoa, bikotekakoa eta hil honen 8an eskuratutako lau t'erdiko zapelak irabazi dituela Aimarrek data hartaz geroztik.

## Guraso Elkarteak

Azken urteotan egin ohi duen bezala, martxoaren 30a arte iraun-

go duen sei hitzaldiko zirkloa antolatu du Guraso Elkarteak. Lehenengo astelehen honetan burutu zen *Familia eta teknologia berriak* izenburuarekin. Hurrengo, berriz, hilbetzaren 26an izanen da, baina honen eta beste hitzaldien berri zehatz eta zabala hurrengo alean emanen dugu. Gaiarekin lotuz, esan, Irune Zabala, Izas-kun Bakero eta Pili Apeztexea Elkarteko Komisioko kide berri direla orain dela aste batzuk egindako batzarraz geroztik.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

## Feria Eguna, hobeki ezin

Feriaren bostgarren edizioak aurrekoaren markak hautsi zituen. Bazkarian, esaterako, 500 lagun elkartu ziren.



ARGAZKIA: AINARA NARBARTE

## Xalto Eguna giro ederrean

Azaroaren 27an, eskolako neska-mutikoeek Xalto eguna ospatu zuten. Nagusienak bertsoak prestatu zituzten eta horiek kantatu zituzten. Gainera, hoberenak saritu ziren. Gaztetxoek, berriz, Lur Kortaren ipuinekin gozatu zuten.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

## Lurdes Bakeroren gomendioak

Zaurientzat mundiala den ukendua egiten erakutsi zien Lurdes Bakerok elkartean bildu zirenei azaroaren 28an burututako ekitaldian

Aukera ezazu ttipi-ttapa laguntzeko proiektua  
can NAFARROAKO AURREZKI KUTXAren

Zeuk aukeratzen duzu,  
zeuk erabakitzen duzu

Proiektu zka.: 14640



## ARANO

# Lantegia itxi eta 69 langile kalean geldituko direla iragarri du Heineken enpresak

Herritarren artean kezka eta haserrea eragin ditu enpresaren erabakiak

### ttipi-ttapa

Heineken enpresak Aranoko lantegia itxiko duela iragarri du eta hala balitz, kalean geldituko dira 69 langileak. Aranoko garagardo lantegiaren ekoizpena bideragarria ez delako hartu du erabakia zuzendaritzak eta hala jakinarazi zien langileei azaroaren 21ean. Iñigo Larrea alkateak **ttipi-ttapa**ri adierazi dionez, «*kolpe handia*» izan da herriarentzat, «*ez zuten inork pentsatzen halakorik*». Are gutxiago, duela gutxi obra handiak egin zituztelako Aranoko lantegian, eta Nafarroako Gobernuak Kalitatearen Q ziurtagiria ere eman ziolako. Aipatu, 2003az geroztik, administrazioak emandako 418.000 euro jaso dituela Aranoko Heineken lantegiak.

69 langile horien artean zortzi aranoarrak dira. Gainerako gehienak Gipuzkoa aldekoak dira. Aranoarren kasuan, batez ere, 40 urtetik goiti-



ARGAZKIAK: KONTXI KLABER

**Lehen 20 urteetan enpresak ez zuen herriko zergarik ordaindu, hala adostu zutelako Udalak eta lantegiak.**

koak dira.

Itxiera dela-eta, zuzendaritzak neurri hauek proposatu dizkie langileei: 52 urtetik goitikoek aurre-erretiroa hartzea—langileen hirutik bat talde honetan sartu daitezke—; beste lantegietara joatea—Madril, Sevilla, Jaen edo Valentziara—, kontratua etetea edota bajak eta trukean pizgarriak ematea. Dena den, oraindik erabaki gabe dago, eta Larrearen hitzetan, guz-

tia «*airean*» dago. «*Itxi arren, zuzendaritza ahal duena egiten saiatuko da, eta horretarako langileekin hitz eginen dutela esan didate. Bahliteke akordio pertsonalak ere egitea*». Sindikatuek eta zuzendaritzak egindako bileretako batean, azken horren asmoa «*gizarte plan*» bat egitea dela aipatu zuten.

**26 URTE HERRIAN**  
Lantegia 1982an zabal-

du zuten Aranon, eta handik urtebetera hasi zen lanean. Juan eta Teodoro Kutz izan ziren, ordura arte Donostiako Antiguozegoan lantegia itxi eta Aranokoa ireki zutenak, El Leon zerbeza komertzializatzeke asmoz. Handik lau urtetara, Cruzpamporen esku gelditu zen lantegia eta gero Heinekenen eskuetan. Geroztik, talde horren barne, Heineken, Cruz Campo, Amstel eta

Legado de Yuste bezalako markekin egin dute lan.

### HERRIKO AURREKONTUAN ARRASTOA

Lantegiaren itxierak Udalaren aurrekontuan eragin «*kozkorra*» izanzen duela aurreratu digu alkateak eta horrek jendearen artean haserrea sortu du. Izan ere, hasierako 20 urteak Udalari inongo zergarik ordaindu gabe pasatu zituen enpresak, herritarrek lantegian hartzeko akordioa sinatua zuelako Udalarekin. Baina azken 6 urteotan, urtean 36.000-40.000 euro artean jaso ditu herriak eta «*Aranoko bezalako herri batentzat hori asko da*».

Oraindik produzitzen jarraitzen du enpresak eta urtea bukatu arte horrela segituko dutela usate du Larreak. «*Ez dute datarik zehaztu, baina esan dutenaren arabera, hurrengo urteko lehen hilabeteetan itxiko dute lantegia*».



## EUSKARA

# Ehunka produktu jasoz kalean da Euskarazko Produktuen Kataloagoaren ale berria

267.000 ale banatuko dira Euskal Herri osoan

## ttipi-ttapa

Aurten hamaikagaren aldiz, Euskarazko Produktuen Katalogo berria kaleratu dute Euskal Herri osoko 111 Udal eta Mankomunitateetako Euskara Zerbitzuek. Euskal Herri osoko euskara teknikariak dira katalogoa osatzeaz arduratzen direnak.

Urte sasoi honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten da, eta horretan laguntzera dator Euskarazko Produktuen Katalogoa. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edi-


zio berri honek. Zehazki, paperezko edizioan 317 produkturen berri jaso dute eta Interneteko edizioan, aldiz, argialetxeetatik jasotako produktu guztien erreferentziak ageri dira, 400 inguru. [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web gunean daude horiek guztiak, eta nahiz izanez gero, katalogoaren PDF dokumentua ere jeits daiteke. Katalogoan ageri diren produktu guztiak dagoneko merkatuan daude salgai.

Zortzi ataletan sailkatuta, batez ere, aurten kaleratu diren produktu berriak bildu dira katalogo honetan: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta infor-

matika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, zenbait ataletan, adinaren arabera banaketa ere egin da. Gurasoentzako lagungarri gertatzea nahi dute arduradunek, «*etxeko haur eta gaztetxoak euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko edo gozatzeko aukera izan dezaten*».

## URTEK URTERA ALE GEHIAGO

Aurten 267.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan, iaz baino 7.000 gehiago. Urteik urtera zabalduz doan ekimena da, ale gehiago izatez gain, hartzen duten eremu geografikoa ere gero eta haundiagoa baita.



IRUDIA: KULTURKARI

Irudian ageri den horixe bera da 2008/2009 denboraldiko Euskarazko Produktuen Katalogoaren azala. Euskarazko 317 produktu jaso dira guztira: liburuak, aldizkariak, musika, filmak, jokoak, DVDak...



**BAZTAN**

**FLASH**

## Herrietako alkateak aukeratzeko hauteskundeak abenduaren 21ean

Bortz puntu atera zizkion Iruñeko Oier Lakuntza bigarren sailkatuari

**Maite OTEIZA**

Baztango 15 herrietako batzarretan hurrengo bi urteetarako alkatea hautatuko da abenduaren 21ean. Azken urteotan, alkatea izateko prest dagoen norbait aurkeztea zail xamarra izanda. Honen adibidea Elbeten gertatu zen, inor ez baitzen aurkeztu eta alkaterik gabe bi urte pasatira.

Herrietako alkateek herriko martxaz arduratzeaz gain, Batzar Nagusian parte hartzen dute. Azken batean, Udala eta herriaren arteko birtartekaria izatea da.

Gaur egun, araudiak berritzeko batzordean, lau herrietako alkateak eta Udal ordezkariak dabilta, araudiak eguneratzeko.

**Bertan elkarteko zuzendaritzako karguak**

Bertan Baztango Merkatarien Elkartek banatu ditu zuzendaritza batzorde berriko kar-

guak. Abenduaren 2ko bilkuran erabaki zuten datozen bi urtetan ba-koitzak zein ardura izanen duen. Mari Joxe Alañan izanen da lehendakaria; Mikel Sobrino lehendakariordea; Jaime

Biguria idazkaria; Blanka Letona diruzaina eta Ana Goñi eta Joxe Mari Ursuegi bokalak.

Biguria idazkaria; Blanka Letona diruzaina eta Ana Goñi eta Joxe Mari Ursuegi bokalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Jon Elizetxe nagusi Mariano Izeta bertso sariketan**

Jon Elizetxe da Mariano Izeta Sariketako hirugarren edizioko txapeldun berria. Bi kanporaketen ondotik azaroaren 29an jokatu zen Elizondoko finala eta seikotea aritu zen lehian. Guztien artean Gartzaiingo bertsolaria izan zen nagusi. 80 bertsozale inguru elkartu ziren Eliza ondoko aretoan eta saio politarekin gozatzeko aukera izan zuten. Elizetxe seguru aritu zen ofizioa eta kartzelako ariketetan borobildu zuen saioa. Denetara, 188 puntu lortu zituen. Bere ondotik, orain dela bi urte Mariano Izeta sariketa honetan garaile atera zen Oier Lakuntza iruñearra sailkatu zen, 183 punturekin. Hirugarren postua Leitzaara joan zen, Diego Riaño gelditu zen; Alazne Untxalo iturendarra laugarren izan zen; Beteluko Aritz Saraguetza bortzgarren eta Iraizotzeko Ekaitz Astiz seigarren. Saioa amaituta, Mariano Izeta zenaren alabak jantzi zion txapela irabazle berriari.

**Elizondoko Abesbatza Iruritan**

Juanito Eraso abesbatzaren sortzailea eta zuzendaria hil zenean, Elizondoko Abesbatzak geldialdi bat izan zuen Isabel Lakar lesakarraren zuzendaritzapean abiatu ziren arte. Azken urte hauetan, berriro bere ize-na zabaltzen hasi da, gure mugetan barnat eta kanporat. Madril-joan den asteburuan, Nafarren Fermin Sainduaren Elizan-, Zaragoza, Valentzia eta Euskal Herrian dabilta. Gainera, Zaragozatik ohorezko laugarren postua ekarri zuten, profesionalen abesbatzen artean. Iruritan ere izan ziren, eta Udalak, Salvatore Elizak eta Abesbatzak antolaturiko kontzertu honetan 15 abesti eskaini zituzten, Josune Makibar soprano arraiotzarrak eta Sergio Martinez pianistak lagundurik. Erreperitorioan Mozart, Hilarion Eslava, Mocoroa, Uruñuelaren... kantuak entzungai izan ziren. Elizondoko Abesbatzak jasotzen dituen dirulaguntzen truke, zenbait kontzertu eskaini behar ditu. Urtero herriz herri bisitak egiten ditu, eta aldi berean egiten dituen kontzertuak baztandar guztiengana ailegatzen ditu.

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967  
✉ maxone@terra.es

**BURKAITZEA**  
- ostati  
- erretegia

Zugarramundiko bidai, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**Eskisaroi**  
LITENEA

Jaime Urrutia  
Tfnor: 948 580 013  
ELIZONDO

**LABIAGA**  
eraikuntzak

IMANOL 608 117 634 |  
XATUR 608 117 635 |

Berro auzoa - Berro Txiki etxea  
31700 Elizondo

## BAZTAN

## Urtarrilean inauguratuko dute Elizondon eraiki den Haur Eskola berria

1,1 milioi euro inguruko aurrekontua izan du

### ttipi-ttapa

Hasiera batean, abenduan egitekoa bazen ere, azkenean urtarrilean inauguratuko dute Elizondon eraiki duten Haur Eskola berria. Orain arte Elizondoko Osasun Zentroaren ondoan zegoen eraikinak hartzen zituen 0-3 urteko haurrak baina ez zen Baztan guztiko umeak hartzeko nahikoa. Horregatik ekin zion Udalak Erabeta eta Merkatzelari inguruan solairu bakarreko Haur Eskola eraikitzeari. Lanak gibeleratu dira baina laster zabaltzea espero da. 1.132.718,05 euroko aurrekontua izan du.

Duela 16 urte sortuzen Baztango Haur Eskolazaharra. Hasiera batean goizez bakarrik eskaini zuen zerbitzua.

Egungoa, ordea, osatua izanen da. 85 hurrei eskainiko die zerbitzua eta 920 metro koadro ditu.

### Amaiur 1512-2012

Nafarroako Erresumaren alde borrokatu zuen azken gaztelua izan zen Amaiurkoa. Duela 500 urte izan zen hori eta horren harira, 2012 bitartean gogoratzeko kanpaina bat egingen da. 1512an Gaztelako Erresuma Nafarroakoa konkistatzen hasi zenean, Nafarroako Erresumabereskuratzeko hiru saio egin ziren: 1512an, 1516an eta 1521ean. Hain zuzen, Amaiurren babestu ziren Nafarroako Erresumaren aldeko azkenak, eta 1521 eta 1522 artean bataila gorrak izan ziren herrian.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Erratzuko frontoia akitua

Mende erdia bete duen urtean berritu dute Erratzuko Etxelebertz frontoia. 447.304,77 euroko aurrekontuarekin ezkerreko pareta zaharberritu eta eskuinaldea kristalekin itxi du Reformas Reyno de Navarra enpresak. Aipatzekoa da, obrak gorabeheratsuak izan direla. Izan ere, urte hasieran, konponketa lanetan ari zirenean, teilatuaren zati handi bat erori egin zen. Zorionez, moldaketa lanean ari ziren hiru langileak teilatu erori baino lehenago atera ziren eta ez zuen kalte pertsonalik eragin.

Bada, kanpaina honekin Nafarroako independen-tziaren alde borrokatu izana gogoratu nahi da, eta hortaz eman diote izen hau ekimenari: *Amaiur 1512-2012, Nafarroa bizirik*.

Ekimena abendu hasieran aurkeztu zuten, bertzeak bertze, Miguel Jose Ariztia Amaiurko alkateak eta Santi Aldako eta Martin Garde Udale-

ko zinegotziek. 2009ko otsailaren 1ean Amaiurren egingen den ekitaldiarekin hasiko dute oroitze ko kanpaina hau.

### Lau mendizale Saioan galdurik

Lau mendizale erreskatatu zituzten azaroaren 30ean Saioa mendian Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek, denak ere onik. Antza, eguraldi kas-

karrarekin, mendizaleek orientazioa galdu zuten.

### Gida-baimenak egiteko mediku-azterketak

Gida-baimenak eta arma lizentziak berritze ko mediku-azterketak egiten diren Elizondoko bulegoan, ordutegia aldatuko da hilaren 24an eta 31n. 8:00etatik 13:00etara egonen da zabalik.



idoia oteiza  
ileapaindegia

- ileapaindegia

- burua garbitzeko aulkiak  
shiatsu masai sistemarekin

Plazaburua, 9 bajo Elizondo  
T 948 580 390

www.idoiaoteiza.com  
info@idoiaoteiza.com

## BAZTAN

# Krisia dela-eta, udal ordezkariak ordainsariak izoztea erabaki dute

Aho batez erabaki zuten abenduaren 1eko udalbatzarrean

### ttiipi-ttapa

Gaingan dagoen krisi ekonomikoari aitzin egiteko, udal ordezkariak euren ordainsariak izoztu eginen dituzte hurrengo urtean. Horrela erabaki zuten abenduaren 1ean egindako udalbatzarrean. Erabakiak denei eraginen die, alkate zein zinegotziei. Aitzineko udalbatzarrean UPN alderdiak «zailtasun ekonomikoak» tarteko, korporazioaren lansari eta dietak izozteko proposamena egin zion Nabairi. Virginia Aleman alkateak, orduan, krisiaren harira, zerbait prestatzen ari zirela erantzun zion eta gaia hurrengo plenorako utzi zuten. Hala izan zen. Horren ondotik etorri baita 2009an indarrean paratuko duten neurria. Udalbatzak aho batez erabaki zuen udal ordezkarien ordainsariak izozteko UPNk egindako proposamena.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Etorkinei laguntzeko programa abian

Atzerritarren harrera eta integrazio programak hobetzeko eta guttien duten gizarte taldeei arreta eskaintzeko asmoz, Udalak eta Bidelagun Boluntario Elkarteak elkarlan hitzarmena sinatu zuten azaroaren 27an Udaltelean. Udalak inmigrazioarekin lotutako ekimenak Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean egitea proposatu zion Bidelagun elkarteari eta horretan ari dira orain. Nafarroako Gobernuo Inmigrazio Departamentuari proiektua aurkeztu eta 15.000 euroko dirulaguntza jaso dute. Proiektuak bi zati nagusi ditu: batean, gizarte zerbitzuak sendotzeko eta koordinatzeko lanean ariko dira eta bertzean gizarte sentsibilizatzeko lanean. Arlo honetan, Islamari buruzko jardunaldiak eta zine emanaldiak egin ondotik, Baztango etxeetan banatuko den gida bat egiten ari dira orain. Baztanen 504 atzerritar daude gaur egun, populazio osoaren %6,45a. Horietatik erditsua, 242, Europatik dator, 220 Amerikatik eta 40 Afrikatik. Elizondon daude atzerritar gehienak, hamar bizilagunetik bat kanpotik etorria baita. Baztanen 35 herrialde ezberdinetako atzerritar daude eta 17 hizkuntzatan solasten dira.

## FLASH

### Abenduko kultur ekitaldiak

Urtea akitzeko gutti gelditzen bada ere, bitartean hainbat kultur ekitaldi izanen dira Baztanen.

### LIBURUAREN AURKEZPENA

Xabier Soubeleten *Izoztetik izaneralan* berriaren aurkezpena **Arizkunenean**. Ortziralean, 19:30ean.

### KONTZERTUAK

Abenduaren 20an, Udal Musika Bandaren kontzertua **Elizondoko** parrokian, 18:00etan. Hilaren 27an, Banda Recreoren kontzertua **Elizondoko** parrokian, 19:00etan.

### ANTZERKIA

Abenduaren 21ean, **hitzzen lapurra bertso txongiloa** antzezlanaren lurritako Gizarte Bilgunean, 17:00etan. Abenduaren 25ean, **Iru-ritan** Jaiotza biziduna izeneko antzezlanaren pilotalekuan, 18:30etan.

### FILMAK

Hilaren 20an, *Golazen* film musikala **Etnografia Museoa**n, 16:00etan. Film bera **Amairren**, ortziralean joko aretoan, 18:00etan. Abenduaren 26an, *Irabazle ala galtzaila* filmela **Lur** aretoan, 17:00etan. Abenduaren 26an *euskalerria bizikletan: nere lehen bidaia* diapositiba emanaldia, 17:00etan **Iru-ritako** Gizarte Bilgunean.

### HAURRENTZAKO TAILERRAK

Hilaren 22an, **Amairko** eskolan, 16:00etan. Hilaren 23an, **Lekarozko** eskolan, 16:00etan. Abenduaren 29an, **Anizko** eskolan, 16:00etan. Hilaren 30ean, **Oronozko** eskolan, 16:00etan. Antolatzailea: Baztan-darren Biltzarra.

**CIABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES**

**ZIOZ**

PROMOCIONES INMOBILIARIAS

PROMOZIO BERRIAK ELIZONDOn :  
Familia bakarreko etxebizitzak eta pisuak

Santiago, 55 • ELIZONDO • 948 580 452

**Bierresenea**

OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Burriots auzoa • Tfnoa: 948 582 043  
ORDNOZ • MUGAIRI

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo • braulio iñarte 33, 1ºD • 31700  
948250371 iruñea • irabeko monastegia 62, 4ºC • 31011

## ZUGARRAMURDI

# 178.500 euro kostako dira araztegia doan bidea zabaltzeko lanak

Lanak Nilsak finantzatu ditu eta hurrengo urtean hasiko dira

## Margari eta Koro

Heldu den urteko lehen sei hilabeteetan hasita, araztegia joateko bidean zabaltze lanak eginen dira. Akitu, berriz, hiru hilabete barru eginen dira. 178.528 euro kostako da obra horiek egitea eta Nilsak finantzatu ditu.

Herriko araztegia Nafarroako zaharrenetarikoa da eta urteen joanean araztegia egin diren lanen ondorioz, harat joateko bidea ttiki gelditu da. Horregatik eginen dira lanak. Udala eta Nilsa Nafarroako Toki Azpiegiturak S.A. araztegi-rako bidea zabaltzeko proiektuarekin lanean hasiak dira dagoeneko. Nafarroako Gobernuak ere esku hartu behar izan du eta honek proiektuak ukitzen dituen ondasunen okupazioa premiazkoa zela adierazi du.

## Asteburu arrakastatsua

Izugarriko arrakasta ligitarekin gan zen Sor-

gin Ihaziari buruzko aste-hondarra. Larunbat goizean egin zuen eguraldi ederrak ederki lagundu zuen sendabelarreko ikastarokoek leize-gaineko belarrak harrapatu eta ezagutzen. Arratsaldean bota zuen eurriak ia ez zioten kalterik egin, Akelarrenean ukendu bat prestatzen aritu baitziren. 17 lagun aritu ziren ikastaro honetan. Gauean *Harresi ostean pareta* ekitaldiak ere ia betetzeko puntua utzi zuen auditorioa, 50 lagunetik pasa bildu baitziren olerki eta musikak aditzera.

Igandean bota zituen ortoska, euri eta elurrek ez zuten batere izitu jendea, auditorioa bete-bete egin baitzen bertso saioa entzuteko. Bertso hauen bidez, jendeari gozarazteaz gain, bertze bi gauza lortu zituzten bertsolariak: duela 400 urte gertatutakoak hobeki ezagutu, eta sorgin haiei omenaldi ttiki baina hunkigarri bat eskaintzea.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Herritarren arreta bereganatu zuen sendabelarren ikastaroak.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

## Herriko 'sorginak' Gasteizen

Gasteizen eskaini zen *Inkiszioa eta Zugarramurdiko sorginei* buruzko erakusketa harira, ateraldi bat antolatu zuen Herriko Etxeak abenduaren 3rako. Erakusketa interesgarria izan zen, eta Gasteizen gure herriari buruzko historia gehiago ikasi zuten. Behin Gasteizeraino ailegatu eta nola ez!: Arabako Errioxara hurbildu ziren, La Bastida herrira, eta han Remelluriko bodega ezagutu zuten, baita han bazkaldu ere. Bazkalondotik herriaren bisita gidatua izan zuten. Halako egun pulita pasatu ondotik, itzulera franko komediatsua izan zen, autobusa plazara ailegatu beharrean, juxtu-juxtu Arretxea-ko aparkalekura ailegatu baitzen, bidean bi arruda galdu ondotik.

## Mendi federatua

Mendi federatu txar-tela berritzeko epea or-

tziralean, abenduak 19, finituko da. Interesatuak Marixan ostatuan izena

eta dirua utzi behar dituzte. Xehetasun gehiago ostatuan.

ferreteria  
**Quevedo**

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

**SARA**

## Olentzero herriko plazatik pasako da larunbat iluntzean

Bertzalde, Telethonak 2220 euro bildu ditu aurten

**Xan HARRIAGUE**

Urte guziz bezala, Olentzerok bisita bat egingen digu ethez etxe pasatu baino lehen. Heldu den larunbatean plazaraino etorriko da herriko haurren agurtzeko.

18:30ean arribatuko da, eta azken metroetan hiru eskoletako haurrek lagunduko dute krisiluekin. Eguberrien zain egoteko bitartean, sunbila ekarriko du, hau da, goxokiz betetako enborra. Hori eskertzeko haurrek kantuak prestatu dituzte, eta Herriko Etxearen atarian eskainiko dizkiote. Gazteena bukatzean helduen txanda izanen da, eta hauentzat aperitifak izanen da herriko kantariek eta musikariek alaiturik.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Aurten ere ez du hutsik egingen Olentzerok eta neska-mutikoek ongi etorri beroa egingen diote.**

### **Telethona**

Eguraldi txarra izan bada ere, Telethonakiaz bezainbat diru bildu du aurten. Eskoletako haurrek, Larrunera trenan igotzeko eskaintza, eta esku baloiko taldeak

emandako krakadarekin 2220 euro eskuratu ditu urritasuna duten pertsonen laguntzeko eta eritasun horien ikeritzeko. Larrungo trenan 65 lagun upatu ziren, baina bertako zuzen-

daritzari eskas iruditu zaio, eta baliteke heldu den urtean horrelakorik ez izatea. Beraz, Telethonaren alde diru biltzen segitzeko ideia guztiak ongi etorriak izanen dira.

**URDAZUBI**

## Haurren heziketari buruz hitzaldia ortzegunean

**ttipi-ttapa**

*Haurren hezkuntzako oinarrizko gaitasunak* izenburupean hitzaldia eskainiko du Marta Aristu psikologo eta sexologo baztandarrak ortzegun honetan, abenduak 17. 17:00etan hasiko da solasaldia eta eskolan izanen da. Nahi duten guztienezako egonean da zabalik.

### **Santaluzia Eguna**

Ugarana Emakumeen Elkarteak antolatuta, urtero bezala, joan den abenduaren 13an, Santaluzia Egunez, afaria egin zuten herriko emakumeek Koxka jate-txean.



**igogailuen instalazioa**  
 Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
 Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
 suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure gogailua instalatzen dizugu



**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...  
 Euskal Herriko preziorik hoberenak **EGUNERO IREKIA**

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

**ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK**

Parrilan egindako haragi eta arrainak  
 Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN



## SENPERE

# Jokin Etcheverria senpertarra ETB3 telebista kate berriko ikurra bilakatu da

Bururaterat doan urtean, 500 ateraldi eskas egin dituzte suhiltzaileek

## Franck DOLOSOR

Jokin Etcheverria 29 urteko senpertarra My-Jok jantzi kolekzioarekin eta Maiana Agorrody uz-tarriztarrakin egin dituen grafismo lanekin egin zen ezagun duela zontzait urte. Berrikuntza hauek toki eskasa dute oraino Ipar Euskal Herrian eta lan bila norabait joan behar zuten. Bizi osoa Donibane Lohizunen egin duen senpertarrarentzat Parise urrunegi zen eta mugimendu haundia duen Bilbo hautatu zuen bizitzeko eta lan egiteko. Bizkai-ko hiriburuan zabaldu du tailerra. Lan gehiago ere atzeman du Jokinek han, Euskal Telebistan, hain xuxen: ETB3 kate tematiko berria *BURP Bask Underground Reports* saio harrigarria aurkezten du senpertarrak. Intxaurrek burdinezko xapel batekin hausten dituen eskuldun berria edo pilotan tanga batekin jokatzeko ari diren bi lapurtar agertzen dira *BURP* saio umore-

tsu eta ironikoan. Ainitzek diote onartezina dela holakoak agertzea telebista publikoan. Modernitate eta ziria ezin dela errarari utzi errepusta ematen du Jokinek. Orain arte, euskaraz sekulan ikusi ez diren 12 minutuko 48 saio prestatu ditu. ETB3z gain, YouTube sarean ere ikus daiteke *BURP* saioa, egun guziko bizitiki ihes egiteko proposamen alternatiboa...

Bertzalde, Jokin Etcheverriak *Chiloe* piak emanaldia ere aurkezten du ETBn. Eleanitza izatea maite duen lapurtarrak mundu osoa korritu du azken hilabeteetan eta harreman hobea erdietsi du beti herri tikietan haundietan baino. Istanbul, Orlando, Flandes, Bretaña, Taiwan eta Indian barna ibili da, bertzeak bertze. Leku hauetatik irudi zoragarriak eta aipamen umoretsuak ekarri ditu. Orain arte, ETB3n eskaini dituzte *Chiloes* saioaren atal berriak baina urtariletik

goiti, ETB1en, eta otsailen, ETB2n ere ikusteko parada izanen da. Etcheverriaren ikus-entzuzko lanek solas eta kritika ainitz sortu dute. Nehor ez da isilik egoten, edo maite dute, edo kritikatzeko dute. Kontuak kontu, estilo berria ekarri du Euskal Telebistarak, Iparaldeko doinuarekin eta begiradarekin gainerat...



ARGAZKIA: EITB

Jokin Etcheverria ETB3ko aurkezlea.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

## Lagunen arteko afariak

Aurten 80 urte bete dituzten senpertarren biltzarra egin da duela guti. Aspaldiko lagunak berriz ikusteko eta solasteko momentua izan da. Argazkian senpertar ezagun eta maitatu frango ageri da, bizi osoan lan baliosa egin dutenak.

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
AUDI

**MARKA GUZIEN KONPONKETA**  
Baniarta, 2 - Alkalaga Industrialea  
LESACA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

HERBINO  
LTXENO  
EDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

Tel: 0559542519  
Makastu eta Véronique

**SARA**

**SOULE**

hileta artea  
Tlx: 948 432 444  
Mlx: 927 022 100

**MONTXO OSTATVA**

Dantzarineatik  
2 km-tara

**TABAKO-DENDA  
ANZAN-BORDA - YRDZVBI**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

## SORTZEAK

**Naroa Michel Jimenez Mora**, Berakoa, azaroaren 25ean.  
**Maria Altzuguren Zabala**, Berakoa, azaroaren 23an.  
**Ainhoa Organbide Telletxea**, Elizondokoa, azaroaren 16an.  
**Gaizka Telletxea Quartier**, Elizondokoa, azaroaren 17an.  
**Leire Telletxea Galarregi**, Iruritakoa, azaroaren 24an.  
**Aitor Eskudero Barrenetxe**, Gartzaingoa, azaroaren 21ean.  
**Cristhopher Manuel de OliveirA Ortez**, Elizondokoa, azaroaren 25ean.  
**Elene Zapata Cebrian**, Arizkungoa, azaroaren 27an.  
**Unai Eraso Mitxelena**, Doneztebekoa, azaroaren 23an.  
**Janire Arretxea Tumas**, Doneztebekoa, azaroaren 21ean.  
**Inge Isasi Zabaleta**, Iturengoa, azaroaren 18an.  
**Elora Pikabea Fernandez**, Iturengoa, azaroaren 25ean.  
**Uxue Ubiria Gartzia**, Lesakakoa, azaroaren 15ean.  
**Luz Nahikari Abuin Matos**, Donamariakoa, azaroaren 24an.  
**Haizea Lopez Mitxeko**, Gaztelukoa, abenduaren 4an.  
**Jabier Labaien Larraia**, Leitzakoa, azaroaren 16an.  
**Ugaitz Loiarde Olano**, Leitzakoa, azaroaren 22an.  
**Mihai Pop**, Leitzakoa, azaroaren 25ean.



## EZKONTZAK

**Jose Jabier Cano Arribillaga** eta **Ivonne Gutierrez Perez**, Berakoa eta Elgoibarkoa, azaroaren 15ean Beran.  
**David Urrea Garro** eta **Yolanda Yecora Riloba**, Lesakakoak, azaroaren 22an, Lesakan.  
**Fernando Martin Mariñelarena Cuadrado** eta **M<sup>a</sup> Koro Elizalde Elizalde**, Donostiakoa eta Zubietakoa, azaroaren 29an, Zubietan.



## HERIOTZAK

**Maria Maia Dendarieta**, Elizondokoa, azaroaren 26an, 94 urte.  
**Geronima Etxarte Etxenike**, Etxalarakoa, abenduaren 9an, 91 urte.  
**Sor Josefa Monreal Velaz**, Elizondokoa, azaroaren 18an, 73 urte.  
**Francisco Fernandez Bidegain**, Elizondokoa, azaroaren 19an, 76 urte.  
**Victoria Verdu Suhas**, Urdazubikoa, azaroaren 22an, 86 urte.  
**Ana Diez Aranburu**, Lesakakoa, azaroaren 22an, 94 urte.  
**Jacinta Canovaca Rosales**, Berakoa, abenduaren 2an, 88 urte.  
**Prudencio Etxabide Mikelestorena**, Etxalarkoa, abenduaren 3an.  
**Jacinta Goia Tapia**, Berakoa, abenduaren 5ean, 89 urte.  
**Francisco Urrutia Grajirena**, Saldiaskoa, abenduaren 7an, 86 urte.  
**Lorentxo Errandonea Zelaieta**, Berakoa, abenduaren 8an, 86 urte.



### Jose Antonio ETXEKOLONEA

Zubietan, 2007ko abenduaren 27an, 79 urte zituela

#### I. URTEURRENA

*Beti irribarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aurrera ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maita izan zaitugun familiarekin*

#### ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
 Maldaerreka S.L.  
 Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
 IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
 ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
 SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
 FUNERARIA BAZTAN  
 TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04  
 SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04  
 LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
 Maldaerreka S.L.  
 Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04  
 LESAKAKO TANATORIOA

## SOKATIRA



ARGAZKIA: LEGARRA

Amaiurko gizonezkoak eta Beti Gazteko neskek 600 eta 500 kiloko txapelak soinean, hurrenez hurren.

# Amaiurrek eta Beti Gaztek irabazi dituzte Nafarroako txapelak

Gizonezkoetan, 640 eta 600 kiloko kategorietan gailendu da Amaiur

## ttipi-ttapa

Nafarroako Goma Gaineko 8x8 Sokatira Txapelketako lehen postu guztiak eskualdean gelditu dira: gizonezkoetan Amaiur izan da nagusi eta emakumezkoetan Lesakako Beti Gazte. Gizonezkoak 640 eta 600 kiloko kategoriatan ibili dira lehian eta emakumezkoak, berriz, 500 kiloko mailan.

Gizonezkoetan bi talde bakarrik aritu dira: Berriozar eta Amaiur eta baztandarrek lortutako lehendabiziko txapela 640 kilokoan jantzi zuten. Azaroaren 16an Arbizun jokaturako saioan Berriozarkoak nagusitu ziren, baina azaroaren 22an Elizondon Amaiurkoak gailendu ziren. Beraz, puntutan berdinduak gelditu ziren, baina Berriozarrekin, hasierako bitiraldietan hiru faltak egin

zituenez, tiraldiak baztandarrentzat izan ziren.

600 kiloko txapelketan, lehen eta bigarren jardunaldiak segidan jokatu zituzten azaroaren 29an Lesakan. Amaiur eta Berriozar lehiatu ziren, eta Amaiur nagusitu zen, baina lana gogotik eginda. Lehenbiziko txandako bitiraldiak ikusgarriak izan ziren. Hasieran Berriozar gailentzen hasi zen, baina bi taldeak goma gainean erorita ibili ondotik, nola edo hala amaiurtarrek bereganatzea lortu zuten.

Bigarrena ere parekatua izan zen, baina Amaiurri falta bat adierazi zioten eta azkenean Berriozar nagusitu zen. Bigarren txandako bitiraldiak, berriz, Amaiurrentzat izan ziren. Hortaz, Amaiurrek jantzi dituzten 640 eta 600 kiloko txapelak.

## EMAKUMEZKOETAN LEHEN ALDIZ TXAPELA LESAKARA

Egun eta toki berean, azaroaren 29an Lesakan, emakumezkoek 500 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zuten. Lau talde arituak ziren lehian aitzineko bi jardunaldietan: Beti Gazte (Lesaka), Sakana, Amaiur eta Txantrea (Iruñea).

Ordurarte saioetan egindako lanagatik, etxeko taldeak, Beti Gazte, puntu bateko abantaila zuen Sakanarekiko eta bien artean erabaki zen txapela. Amaiurko taldea ere Lesakan izan zen, Txantrea, ordea, ez, pisuan sartzeko arazoak izan baitzituen.

Amaiur eta Sakanako nesken arteko tiraldiak Sakanara joan ziren, baita Amaiur eta Beti Gazteren artekoak ere,

bigarren tiraldian Amaiurri hiru falta adierazi baitzizkion epaileak.

Beti Gazte eta Sakanaren arteko lehian erabaki zen txapela. Lehendabiziko tiraldian, Sakanakoak izan ziren nagusi, baina bigarrenean, Beti Gaztekoak. Aitzineko jardunaldian lortutako aldeari esker, beraz, txapela jantzi zuen Beti Gazte. Zortzinakako txapelketan Lesakako nesken taldeak irabazi duen lehen txapela da.

## Herri Kirol Federazioan hauteskundeak

Bertze lau urtez, Joxelu Retegi izanen da Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendaria. Berriki egin dira hauteskundeak eta Retegi izan da hautagai bakarra. Bere bortzgarren legealdia izanen du Joxeluk.

## PERTSONAIA

Txomin MINDEGIA

## Kirol Merituaren Zilarrezko Domina jasoko du aurtan

Txomin Mindegia doñeztebarrak Kirol Merituaren Zilarrezko Domina jasoko du aurtan Doneztebeko Erreka Kirol Elkartearen eskubaloien alde egin duen lan guztia eskertzeko. Aipamen hau Nafarroako Gobernuak emandakoa izaten da. Has tapenetik Errekan lan aunitz egin duena izan da Txomin eta oraindik ere hala segitzen du. Taldeko lehen jokalarietako bat izan zen, eta zuzendaritzako kidea ere bai urte aunitzetan. Kategoriatan desberdinetan entrenatzaile lanetan ibili ondotik, gaur egun senior mailako taldearen entrenatzailea da. Dominaz haratago, lanean segitu nahi du Txominnek eta denboraldi honi begira joan den urteko bortzgarren postua hobetzea du helburu nagusi, beti ere «eguneroko lanean oinarrituz eta jokalariek ongi pasa dezaten ahaleginduz».





## PILOTA

# Aimar Olaizola, lau t'erdiko errege

Laugarren txapela jantzi du goizuetarrak

## ttipi-ttapa

«Aimar, Irujo, Aimar, Irujo», harmailetako burrunba etengabea. Baina txapel bat zegoen eta hori «Euskal Herriko zeruan» omen dauden «bizarretako» batentzat: Aimarrentzat. Izan ere, hala zioen lau t'erdiko finalen harmailetan zegoen pankarta batek: «Euskal Herriko zeruan bi izar: Goizuela eta Aimar».

Lau t'erdiko errege dela erakutsi du berriz ere Aimar Olaizola Goizuetako semeak. Abenduaren 8an jokatu zuen lau t'erdiko finala Donostia-

ko Atano III.a pilotalekuan, Irujoren kontra eta sobera arriskatu gabe jantzi zuen txapela, lau t'erdiko bere laugarrena. Dagoeneko Julian Rete-giren marka berdindu du.

Irujok egindako hutsen ondorioz, hasieratik gailendu zen Olaizola II.a, 5-0eko aldearekin hasi zen. Ia partida guztian aurretik joan zen eta partidak okerrera egin zuen azken txanpan. Irujok ez zuen asmatu, eta Olaizola 22ra hurbilduz joan zen, Irujoren oinak bilatu zituen piloteoan, eta honek hutsak eginez

erantzun zion. Aipatu, sustotiki batere izan zuela goizuetarrak, ezker eskuko hatza hautsi baitzuen. Baina horrek ez zion garaipenerako grinnikendu. Azkenean 22-17 txapela Goizuetara.

Lau t'erdikoan parte hartzeko zalantzan egon zen Olaizola, eta handik hilabete eta erdira jantzi du txapela.

Partida bukatuta gustura ageri zen, eta txapela gurasoei, Oitzeko amonari eta Goizuetako Mireni eskaini zien.



ARGAZKIA: WWW.ASEGARCE.COM

## Bortzirietako eskuz binakako txapelketako finalak jokatu dira

Zazpi mailatan banatuak aritu ziren pilotariak azaroaren 22an

## ttipi-ttapa

Azaroaren 22an jokatu ziren Lesakan, Bortzirietako eskuz binakako VIII. txapelketako finalak. Hasi aurrebenjaminen kategoriatik infantilen maila bitarte, zazpi partida jokatu ziren.

**Aurrebenjaminetan**, erraz nagusitu ziren lesakarrak, Asier Larralde eta Antton Petrirenak 18 eta 6 irabazi baitzieten Igantzioko Joxe Arriada eta Beñat Iantziari.

**Benjaminak B mailan**, aurrebenjamin mailako enaitza berdina

izan zen, 18 eta 6, eta honetan ere Lesakara joan zen garaipena. Aimar Zamorano eta Jorge Agirre izan ziren irabazle, Berako Gure Txokoako Ugaitz Larralde eta Oier Larretxearen aurka irabazita.

**Benjaminak A mailan**, Gure Txokoako Mikel Eltzaurdiak eta Yago Canterok 18-14 irabazi zuten Lesakako Ganix Arruti eta Igantzioko Enaitz Telletxearen kontra.

**Alebinak B mailan**, Mattin Kazabon eta Iker Salaberria oiartzuarrak



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

## Aurtengo txapelketan irabazle atera diren pilotariak.

nagusitu ziren, Etxalarako Goiatz Jauregieta Xabier Sanzborrori 18 eta 13 irabazita.

**Alebinak A mailan**, Berako Gure Txokoako bi bikote izan ziren aurrez aurre. Azkenean, Harri Maritorea eta Ander Errandoneak 18 eta 11 irabazi zieten Peio Migelena eta Andoni Lazkanotegiri.

Azken aituzineko partidatan **infantilak B mailan**, lau oiartzuar ahalegindu ziren txapela eraman eta azkenean Lander Pikabea eta Xabi Azpiroz 18 eta 15 gailendu zitzaizkien Aitor eta Gorka Mitxelenari.

Azkeneko partidatan, **infantilak A mailan**, Gorka Sanjurjo eta Unai Zamorano lesakarren al-

dera joan zen txapela. 18 eta 9 irabazi zieten Oiarzongo Andoni Ugalde eta Mikel Zapiraini.

Partida guztiak akautu ondotik banatu ziren txapelak eta trofeoak finalistei eta orogarri baina txapelketan parte hartu duten pilotari guztiei. Binakakoa bukatuta, las-ter abiatuko da eskuz binakako txapelketa.

# AGENDA

## egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### FILMAK

#### ZUGARRAMURDI

Abenduaren 18an, *Golazen* euskarazko film musikala Sorginen Museoa, 17:30ean.

#### AMAIUR

Abenduaren 19an, *Golazen* euskarazko film musikala joko aretoan, 18:00etan.

#### ELIZONDO

Abenduaren 20an, *Golazen* euskarazko film musikala Etnografia Museoa, 16:00etan.

Abenduaren 26an, *Irabazle ala galtzaille* pelikula, Lur aretoa, 17:00etan.

#### IRURITA

Abenduaren 28an, *Euskalerría bizikletan: nere lehen bidai* diapositiba emanaldia Gizarte Bilgunean, 17:00etan.

#### DONEZTEBE

Abenduaren 17an, *Sahara no se vende* dokumentala Zinemán, 19:00etan.  
Abenduaren 19an, *La valla de la vergüenza* eta *Despiertas* Zinemán, 18:00etan.

### ERAKUSKETA

#### ELIZONDO

Abenduaren 19tik urtarrilaren 9ra, Belen Arevaloren margo erakusketa, *U+2640 en femenino* izenekoa. Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara.

#### URDAZUBI

Egunero, Euskal Herriko egungo margo erakusketa. 11:00-20:00 Monastegian.

### ERAKUSKETA

#### IRURITA

Abenduaren 21ean, *Hitzen lapurra bertso txongiloa* Gizarte Bilgunean, 17:00etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Igantzikoko herri kirol taldeari buruzko saioa ttipi-ttapan

BERTZALDE, EGUBERRIETAN SAIO BEREZIAK

2008a ere badoa, eta laster eginen diogu ongi etorria urte berriari. **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** ere aio erranen dio denboraldi honi, baina aitzinetik izanen da zer ikusi **TTIPI-TTAPA**ren pantaila ttikian.

#### IGANTZIKO HERRI KIROL TALDEAREN INGURUKO ERREPORTAJEA


Ortziral honetako erreportajea, Igantzikoko herri kirol taldeari buruzko saioa izanen da ikusgai. Guztira 10 kirolarik osatzen dute Igantzikoko taldea eta lasto altxatzen duten mailagatik baldin badira ere ezagunak ere, bertze probetan ere parte hartzen dute. Entrenamenduak egiten dituzten txo-

kora hurbildu dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** lankideak eta han jasotakoa ikusteko aukera izanen dugu ortziraletan, abenduak 19.

#### EGUBERRIETAN OLENTZEROREKIN HARAT ETA HONAT

Olentzero ere laster izanen dugu gurekin, eta hori ere bilduko du **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**. Abenduaren 22an, eskoletako Olentzeroren inguruko saioa eskainiko da, eta hilaren 26an, berriz, Olentzerori buruzko programa berezia eginen da. Eta Eguberrietan ohi baino gehiago jan ohi dugulako, nutrizio saio berezia ere eskainiko da abenduaren 24an.

## DISKAK



### Piratak

PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS  
KATXIPORRETA, 2008

20 kantu eta 20 ipuintxo biltzen dituen lana da Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen azken lana, *Piratak* izenekoa. Pailazoen abestien hitzak eta istorioak osatzeaz, eta Xabier Zabala musikariari konposizioak, moldaketak eta programaketa sortu eta landu ditu. Hainbat musikari eta kantari ezagunen doinu eta ahotsekin osatu dute *Piratak*. Musikarien artean daude, bertzeak bertze, Tapia eta Leturia, Oreka TX, Igor Telletxea beratarra, baita Celtas Cortoseko kantaria eta biolin-jolea eta Aitor Gorrosabel Su ta Garreko kantaria ere, Labrit, Ordiziako musika-eskolako ikasleak, Zaldibiako haurrak... Azaroaren 27an aurkeztu zuten lan berria Donostian, eta dagoeneko eskuragai dago *Piratak* cd berria.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (azaroaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 28,00 € (+3,00)

**Zerri gizena**  
1,027€ kilo. (+0,032)

**Zerramak:**  
0,490€ Kg/bizirik. (+0,020)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,07 (=)

**1.koa** 3,77 (=)

**2.koa** 3,07 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,17 (=)

**1.koa** 3,87 (=)

**2.koa** 3,19 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 8,00/8,80

8-10 kilokoak: 6,60/7,00

## JAKIN BEHARREKOAK

# Familia nafarren herenak iaz baino 100 euro gehiago ordaindu behar ditu hilean

Hala dio Irache Kontsumitzaileen Elkartearen ikerketa batek

Bizitza aunitz garestitu da, eta urteetan gibelera gehiegi egin gabe, datuek horrela erakusten dute. Irache Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak egindako ikerketa baten arabera, Nafarroako familien hirutik batek iaz baino 100 euro gehiago ordaintzen ditu aurten hilabetero, eta duela hiru urte baino 330 euro gehiago.

Hipoteka, erosketa zarea, argia, gasa, telefonoaren garestitzea... Hainbat dira gehiago ordaindu behar izate horren gibelean dauden arrazoiak, baina buruhausterik haundiena hipoteka-kredituek eragiten dute.

### HIPOTEKA

Nafarroako familien %31k hipoteka-kreditu bat sinatu du eta hilabete hondarreen sortzen diren kezka nagusietako bat da. Euriborrek etengabe egin



### Hipoteka izaten da familiei buruhausterik haundiena eragiten dien gastua.

du goiti eta horrek ondorioak utzi ditu. 2005eko urrian, euriborra %2,414an zegoen; 2007ko garai berean %4,647n; eta aurten go urrian %5,248n zegoen. Iazko eta aurten go datuak konparatuz, urte hasieran hipotekarekin hilabete bakoitzean 890 euro ordaindu behar baziren, orain 943 euro behar dira.

### EROSKETA ZAREA

Etxeko erosketak egitea ere lehen baino

garestiagoa da orain. Elikagai eta edari ez alkoholduetan KPI kontsumo-prezioen indizeak ere gorakada izan du eta hala, batzaz bertze, familia bakoitzak 515 euroko gastua egiten du hilabetean elikagaietan. Horrela dio Irachek. Elikagaien produkzioa, industria eta kontsumo-eriburuz Mercasak egindako txostenaren arabera, berriz, biztanle bakoitzeko kontsumoa hilean 128 eurokoa da.

### ARGIA ETA GASA

2008an argiaren tarifak %8,9 egin du goiti batzaz bertze, 40 euro inguru. Gasaren prezioek ere nabarmen egin dute goiti eta oraingoz %18 igo da, 28 euro inguru hilabetean.

### TELEFONOA

Telefonoaren mantenimenduagatik Telefonikak ere tarifak go egin ditu. Kontsumoa kontuan hartu gabe, %2 hazi da urte onetan gastua eta 13,70 eurotik 13,97ra pasatu da.

### ZENTZUZ KONTSUMITU

Egoera zein den ikusita, Irachek hainbat aholku luzatu ditu: kalitatea-prezioa aintzat hartuz egitea erosketak, hipoteka-kreditua eskatzera-koan banketxe difereenteen eskaintzak konparatzea, elektrizitatea eta berogailua arduraz erabiltzea...

## LIBURUAK



Izendaezinak

Tere IRASTORTZA  
PAMIELA, 2008

Hamaika galdera edo hogei-tamar, liburuak dituen atalak adina, guttienez. Zer ote da Jainkoa, edo ni edo hura? Eta hara nola, geure baitakoak gara eta geure burujabetasuna aldarrikatu dugun eran, bel-durrari eta heriotzari bidea ixteagatik, amodioari, askatasunari eta bizitzari kendu di-gun hitza, geure gizartean. *Izendaezinak* liburuak eraman du pentsatzera horiek denak (sentimenduak, pentsamenduak eta bizipenak) gor-

de daitezkeela erran gabe; gerta litekeela horiek isilik gorde-rik ere modu gizakoi eta sakonean bizi ahal izatea. Baina,aldi berean, bertzeekin batera ez dela, ezin direla bizi askatasunean, erran edo adierazi ezean, zeren eta izendaezinak bertze edozein iritzi, pentsamendu eta bizipen lotu egiten baitu. Beasaingo Ikastola-ko zuzendaria da egilea, eta Idazle Eskolako zuzendaria. 1980tik zazpi poema liburu idatzi du.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

**Abenduaren 21ean**, Legatera mendi ateraldia, Baztango Mendigoizaleak antolatuta.  
**Abenduaren 28an**, Auza mendira irteera antolatuta du Baztango Mendigoizaleak taldeak.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

**Abenduaren 20an**, Udal Musika Bandaren kontzertua parrokian, 18:00etan.  
**Abenduaren 27an**, Banda Recreoren kontzertua parrokian, 19:00etan.  
**Abenduaren 20an**, Gatiburen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30ean.  
**Abenduaren 27an**, Txutxin Ibañez eta el mariachi Ciudad de Mexicoren kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30ean.

#### GOIZUETA

**Abenduaren 27an**, Umore Ona Abesbatzaren kontzertua 20:00etan Elizan.

### HITZALDIAK

#### DONEZTEBE

**Abenduaren 18an**, *Zer suposatzen du etorkina eta emakumea izateak?* hitzaldia Emakume Internazionalistak taldeko Begoña Zabalarekin, 19:00etan Zineman.

#### URDAZUBI

**Abenduaren 17an**, *Haurren hezkuntzako oinarriko gaitasunak* izenburupean hitzaldia. Eskolan, 17:00etan.

### OSPAKIZUNAK

#### IGANTZI

**Abenduaren 20an**, herriko musikariaren eguna. Xehetasunak 20. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Tipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartitua
106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

### LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

### MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

### ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

### DENETARIK

701. Galdut / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

801. Agurrak



## Baztango

promoción inmobiliaria

**BERAN AUKERA:** berritutako pisua. Egongela, sukalde, 3 logela, komuna eta trastelekua. 202.000 euro.

**BERA:** etxebizitza berria. 2 logela, egongela, sukalde, trastelekua eta igogailua.

**BERA:** herrigunean, familia bakarreko etxebizitza, garaje eta lorategiarekin.

**BERA:** 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta komuna dituen etxebizitza. Igogailua eta trastelekua.

**BERA:** Legia karrikan, 117 m<sup>2</sup>ko etxebizitza, zaharberritu beharrekoa. Kanpoaldera begira.

**LESAKA:** Bittiria karrikan 100m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria, 100 m<sup>2</sup>ko atikoarekin.

**BERA:** familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza egiteko lur eremu urbanoa.

**INDUSTRIALAK:**

**BERA:** 368 eta 277 m<sup>2</sup>ko pabiloi berriak.

**ETXALAR:** 900 m<sup>2</sup>ko pabiloi berria.

**ETXALAR:** lur eremu industrial urbanizatu.

**ERRENTAN EMATEKO:**

**LESAKA:** 3 logelako pisua, sukalde-egongela eta bainugela. Egoera onean.

**ELIZONDO:** 2 logelako pisua, egongela, sukalde eta bainugela.

Kattionberri karrika, 4  
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552  
Faxa 948 630106

## ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrah behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**

- Baserrira salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

### ETXEBIZITZAK 101 Saldu

**LESAKA.** Bittiria plazan pisu moblezatua eta berritua salgai. Sartzeko prest. Egoera onean. 180.000 euro negoziagarriak. ☎650 405532.

**DONEZTEBE.** Pisu berri berria salgai, orain emana. Aparan zaonaldean. Aukera paregabea. ☎617 461649.

**DONEZTEBE.** Duplexa salgai, 3 logelakoa. Aukera eta prezio ona. ☎628 725328.

**DONEZTEBE.** 80m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, sukalde, egongela, komuna eta 2 balkoi hiru aldetara (aitzina, gibelera eta aldeetara). Argitsua, bista onak eta aparkaleku paregabea. Ongi kokatua eta prezio onean. Deitu konpromisorik gabe. ☎615 561458.

**DONEZTEBE.** 100m<sup>2</sup>ko pisua salgai Zazpigerutze auzoan. ☎639 184210.

**ARIZKUN.** 70m<sup>2</sup>ko pisu erdiberria salgai edo errentan emateko. Guztiz moblezatua. ☎676 767553.

**LESAKA.** Bittiria karrikan, 110m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Prezio ona. ☎670 319380/607769519 / 948 637347.

**BERA.** Eztegaran dagoen etxe xarmangarrian pisua salgai (La Caixaren gainean). ☎948 630757.

### ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

**BERA.** Apartamentu kurio-

so eta apaina errentan emateko. Argitsua, berria eta moblezatua. Bakarrik nahiz bikotean bizi nahi duenarentzat aproposa. Herrian bertan baina inguru lasaian. ☎607 226795.

**ELGORRIAGA.** Pisua errentan emateko. ☎629 734263 (18:30etik aitzinera).

**BERA.** Herri erdian 90m<sup>2</sup>ko pisu zaharberritua errentan emateko. ☎680 984353/948 6310489.

### ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

**ELIZONDO-ELBETE.** Etxebizitza bat errentan hartuko nuke. ☎610 949168.

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESAKA.** 20m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**LESAKA.** 53m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, behesolairua. ☎679 432522.

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

**BERA.** Bidasoa karrikan, Telefonicaren ondoan, garajea errentan emateko. ☎948 630465.

### ZERBITZUAK 205 Zurginak

## ARANTZA

Zurgindegia.....

Klase guztietako zurgin lanak  
Eskatu surretantunak konpromisorik gabe

Jose Miguel Zubizarain  
Tel. 948 634 340 - 647 818 114  
Gertutako: ARANTZA

### ZERBITZUAK

**208 Bertzelakoak**

Mota guztietako **fruta-arrabolak** kimatzen dira. ☎666 283847.

**BURLATA-IRUÑA.** Tayri kiromasajista. Bizkarrezur-reko ondoezak zuzentzen laguntzen dugu. 10 eguneko tratamendua 150 eurotan. Era guztietako gaitasun eta arazo emozionalak artatzen dira loreekin. Oparitu osasun-boonak=masajeak 9 egunetan. ☎647 156370.

**Etxeko ileapaindegi zerbitzua.** Ile-apaintzaile diplomatu, gizonetako, emakumetzako eta haurrentzako. ☎647 810149 / 948 631282.

## BORDA

PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK  
DEKORAZIOA  
ERABERRITZEAK  
SABAI MODULARRA

Aldur 37-8 (LESACA)  
bortzakar@telefonos.net  
Tfn./Fax: 948 637 546  
Mó: 608 477 277

### LANA 301 Eskariak

**Emakume euskaldun** batek orduka goizez edo arratsaldez lan egingen luke. ☎655 720432.

**BERA-LESACA.** Emakume batek orduka edozein lan egingen luke. Astelehenetik ortziratera. ☎664 337210.

**LESACA.** Emakume bat egunean 4-5 orduz garbiketara lanetan ariko litzateke. ☎680 886499 (arratsaldez).

Gizonetako bat **txofer** lanetan ariko litzateke, kamioi astunekin edo trailerrekin. ☎687 149060.

**BERTIZ.** Natur Parkeko Turismo Bulegoan langilea behar da. Urte osoko kon-

tratua (2009a) izanen luke. Baldintzak: turismoko lanbide heziketa edo turismoko diplomata izatea; euskara eta behintzat atzerriko hizkuntza bat jakitea. Bidali curriculum: Bertizko Natur Parkea. 31720 Oieregi edo [ostaitz@yahoo.es](mailto:ostaitz@yahoo.es). Informazioa: ☎948 592421.

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

**Kawasaki ZZR 1.100** motorra salgai. Gurpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. Egoera onean. Prezioa: 2.000 euro. ☎646 769186.

**Seat Ibiza 1.400** autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri dutenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egokituarekin. ☎699 279940.

**BMW 330d Touring** autoa salgai, 2002koa, 127.000 km, nazionala. 16.000 euro. ☎948 630709.

**Citroen Saxo** autoa salgai. 2002koa, diesela eta 122.000 km. 5 ate eta aire egokitua. Egoera onean. ☎948 599011/627 433452.

**Scooterra** salgai. Egoera onean. ☎948 634082.

**Gas-gas Enducross** motorra salgai, 2,5. 2001eko. Egoera onean. Prezioa: 1.800 euro. ☎680 633497.

### MOTORRA

#### 502 Tailerrak

### MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**



### ANIMALIAK

#### 601 Emateko

**Zakurkumeak oparitze-ko.** Ama Golden Retriever arrazakoa eta aita ezezaguna. ☎948 453043.

### ANIMALIAK

#### 602 Salerosketak

Labrador arrazado 3 **zakurkume** salgai. ☎669 382438.

Hilabeteko 3 **zakurkume** salgai. Ama artzain-zakurra eta atta labrador arrazakoa. ☎948 510224.

43 **eskubide** eta 25 **ardi** salgai. ☎678 959534.

**Ahuntzaenanoa** bereumearekin salgai. ☎616860060.

### DENETARIK

#### 701 Galdu-aurkituak

Hautsitako **plaka duen urrezko kate** bat aurkitu da Berako Zalain industrialdean. Diagonalean egindako markak ditu eta errektangularra da. Ez du

inskrizioirik. ☎948 630955.

**BERA.** Azaroaren 15ean 8 giltzako sorta aurkitu da Beratik Ibardinera bidean, Bigarren kilometroan. ☎948 630181.

**BERA.** Ibardin inguruan setter arrazako bi zakurgaldu dira. ☎626 888339.

10-12 **artantxo** eta **antxu** erosiko nituzke. Mutur gorriak. ☎627 303696.

### DENETARIK

#### 702 Salerosketak

Bigarren eskuko **plastikozko 550 kaxa** salgai. 280 kaxa 80x60x22 neurrikoak eta 270 kaxa 40x60x30 neurrikoak. ☎618 542592.

**Aluminiozko 190 apal** salgai. Bigarren eskukoak. 12 metroko luzera eta 3 metroko altuera. ☎618 542592.

**Ordenagailuak** salgai: Packard Bell. Intel Pentium 4.2.6 GHz, 512 MB RAM,

80 GB, DVD, CD-RW, USB: 2 aitzinean eta bi atzeko aldean. Pantaila plana. Prezio onean eta gutti erabiliak. Denak formateatuak. Galdetu konpromisorik gabe. ☎615 561458.

Bigarren eskuko **bateria** erosiko nuke. ☎670 305441

**2 sofa** salgai: bat hiru plazakoa eta bertzea bi plazakoa. Egoera onean. ☎637 195856.

### HARREMANAK

#### 801 Agurrak

**Muxu handi bat eta Urteberri On** Joseba, Imanol, Ittur, Sanse, Mattin, Porttu, Inaki, Ainara eta errepre-saliatu guztiei! Bortziriak zuekin!



Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua **NAFARROAKO AURREZKI KUTXAREN**

**Zeuk aukeratzen duzu,**  
**zeuk erabakitzen duzu**

Proiektu zka.: **14640**



Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

• Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa • Kutxazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Bestela, bete ezazu argitara emanen diren erro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegiak, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



**BEÑAT MORTALENA LIBANO** elizondarrak 4 urte bete ditu abenduaren 10ean. Zorionak aita eta amaren partetik. Muxu haundi bat.



**Elizondoko EIDER TELLETXEA GALARREGI** abenduaren 14an 5 urte bete ditu. Zorionak Xabier, Eneko, Aimar, Ane eta Leireren partetik.



**Arantzako OIHAN ITURRIA OTXANDORENA** gure deabru tikiak 2 urte bete ditu azaroaren 22an. Segi orain bezain bizkor! Baserriko familia.



**EKAIN ZABALA ORTIZ** lesakarrak abenduaren 7an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila aita eta amaren partetik.



**Sunbillako NAROA ETA OIER PETRIRENA ANTZIZAR.** Zorionak Naroari abenduaren 1ean urtea bete duelako, eta bere anaia Oierri abenduaren 20an 5 urte beteko dituelako. Ongi pasa familia guztiaren partetik eta berexiki Klemente eta Maiderren partetik.




**ZIORTZA GOIA MITXELENAK** 3 urte bete ditu abenduaren 10ean. Zorionak etxekoan partetik eta batez ere Onintzaren partetik. Ongi pasa, hobeki pasa eta mila muxu.



**JONE** eta **ZIORTZA** bi lehengusin sorgin hauek abenduaren 9an eta 10ean 5 eta 3 urte bete dituzte. Auniz urtez familiaren partetik, eta hartu muxu pottolo bana. Zeinen ederki ospatuko dugun!




**LUAIA FAGOAGA BABAZEK** abenduaren 14an 4 urte bete ditu. Zorionak pottoki! Laster ospatuko dugu denok. Oitz eta Berako familia, berexiki izeba



**ANDONI TELLETXEA APEZTEGIA** beratarak 4 urte beteko ditu abenduaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat Asier eta bere familiaren partetik.



**JANIRE TELLETXEA IRATZOKI** ebxalartarrak abenduaren 14an 5 urte egin ditu. Zorionak eta 5 muxu haundi gure pampina bihurriari. Atta, ama, amaxi eta Xabier.



**JONAI MITXEO OSKOZ,** Doneztebeko piperrin tikiak lehen urtea bete du abenduaren 14an. Zorionak familiaren eta berexiki loritzen partetik. Zorionak txarrin!




**BATIXA TELLETXEA** gure aitabxi xaharrik abenduaren 16an 95 urte beteko ditu. Muxu bat eta segi bixkor bixkor, zure xirikak gogoko ditugu eta! Zure birbilobak: Orti, Lexuri, Mikel, Beñat eta Oier.



**Lesakako JAIONE GOÑI MITXELENA:** aupa danborjole parrandera! Abenduaren 19an 6 urte beteko ditu. Prestatu bizkobko on-ona. Ongi pasa eguna eta muxuak Arantzako familiaren partetik. Parrandera-parrandera!



**Abenduaren 21ean ALBA** gure etxeko printzesak 7 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa zure eguna! Muxu haundi bat ama, aita eta Unairen partetik ("Aba").



**NORA PALENZUELA INDAURUK** 2 urte beteko ditu abenduaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Haunditzen, haunditzen, hasi naiz haunditzen... **IZADI** hasi da haunditzen, **MIRIAM** ez al da gehiago haundituko, eta **ZELES** hasi da... Auniz urtez hiru printzesari!



Zorionak Berako hirukote honi! Ongi pasa zuen urtebetetze egunetan. **AITZIBERREK** abenduaren 14an beteko ditu; **XABIERREK** 28an eta **ANDONIK** 31n. Muxu potolo bat.



**MANEX** saratarrak, **AINARA** beratarak eta **KOLDO** legasarrak abenduaren 1ean, 15ean eta 31n urteak beteko dituzte. Zorionak Berako familien partetik 'wapos'!



**IBAI IRIBARREN LARRETXEA** urroztar txoxo honek abenduaren 23an 13 urte beteko ditu. Zorionak, muxuak eta prestatu berendu goxoa nor garen jaki nahi baduzu.




**LEIRE IRIBARREN INDAURU** etxalartarrak abenduaren 26an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Zubietako **GARAZI SANTESTEBAN OTXANDORENAK** 5 urte beteko ditu abenduaren 16an. Muxu bat denen partetik sorgintxo, berexiki Naroa, Uxue, Iker eta Ekaitz.



**NAIKE ERKIZIA** ORDOKI beratarak abenduaren 25ean 2 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**Donamariako IBIÑKA ERBITIK** abenduaren 19an 5 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Xuban eta Ugaizten partetik. Zorionak!



**Arantzako ENAUT SAN JUAN TABERNAK** 4 urte bete ditu abenduaren 13an. Zorionak gure gizontxoari eta muxu haundi bat denen partetik.



**AIORA ITURRALDE INTZA** gure etxeko printzesak abenduaren 16an 5 urte beteko ditu. Muxu bat Bera eta Lesakako familiaren eta berexiki Uxue eta Ainhoaren partetik.




**UNAI LOIARTE OTXANDORENA** irundarrak 11 urte beteko ditu abenduaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat Esther eta bere familiaren partetik.



**GARAZI SANTESTEBAN OTXANDORENA** zubietarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 16an. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



**Elko, Nevadako MICHELE IGOAK** 14 urte beteko ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**SARA ETXEGARAI ALDABE** beratarak abenduaren 6an 7 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren eta berexiki atxi eta amaxiren partetik. Auniz urtez rubia!



**Auniz urtez MARITXU!** Ea igandean kua-drilla guzia paxarxen tragoxka batera gonbidatzen duzun! Muxu haundi bat *Kaxkarak*-en partetik.



**NEREA BAZTERRIKAK** abenduaren 28an 14 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa pexoxa! Zure lagun Maider eta Garaxiren partetik, muxu bat. Matte zattu.



**OIERREK** 3 urte bete ditu abenduaren 12an. Zorionak 'bitxito' eta musu haundi bat aitaxo, amatxo eta Saioaren partetik.



Zorionak eta urteberri on!  
irakurle guztiei

deskontuak  
DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK

## DATUCELAY

DATUCELAY tailerrak • ELIZONDO  
%10eko deskontua batera eta amortiguadoreetan

## AYLA

argazkigintza, fotografia

AYLA argazki-denda • BERA  
%10 kopia digitaletan, NAN argazkietan



EDURNE arropa-denda • BERA  
%5eko deskontua, 30etik gora eskura onduak

## ETXARTE

ETXARTE bitxi-denda • LESAKA  
%10eko deskontua bitxietan



AMAIA estetika zentroa • DONEZTEBE  
%5 kosmetikan, %10 oparietan



KIROLOK ZELA  
ZELA kirol-denda • BERA  
%5eko deskontua

## SARIDUNAK:

- 4 liburur (Erein):  
Julen Zubietza (ETXALARI)
- Kirolez Badakit mahai-jolasa (Argia):  
Juani Altzu (TUREN)
- Txapela Buruan kamiseta:  
M<sup>a</sup> Eugenia Sagardoi (ETXALARI)  
M<sup>a</sup> Jose Zaldúa (ELBETE)
- Euskal jolasen bilduma II  
Ikastolen elkartea:  
Arantzi Diez (ZUBIETA)
- Ola sagardotegiko DVD:  
Ainhoa Arozena (BERA)
- Oninart 2 kamiseta:  
Ainhoa Etxebeste (SUNBILLA)

AQUARIUM 4 sarrera  
Nagore Eskudero (ERATSUN)  
Rosá Zabaleta (LEITZA)

ORAIN  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!



# ttipi txartela rekin beti irabazten da!

## 6 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu  
asteleheneretik ostiralera  
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

**1**

**DISKA**  
Egutegi kantak  
Lote 1

www.ferminmusic.com

**2**

**MARTIKO**  
Lote 1

www.martiko.com

**3**

**4 SARRERA**  
2 Lote

www.aquarium.com

**4**

2 lagunendako  
**AFARIA**  
Lote 1

**HERRIKO**

## GABONETAKO SASKIA

JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA**  
eta zure **IZEN-DEITURA 5767**ra



SMS 1ekin  
DENA ZURETZAT

Zozketan parte hartzeko epena aldiaren 1194 19kg. irabazteko zuzen irabazteko bakoitza bakoitza bakoitza da. Mazaraki kochak 1.20€ BEZ gabe. Zure izenak ttipi txartela irabazteko bakoitza da zure irabazteko izenaren izen eskuzatzen berri amateko. Zuzenketa edo deusartzearen bat egiteko deitu 948 63 54 58a.



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

[www.betikopvc.com](http://www.betikopvc.com)

[betikopvc@terra.es](mailto:betikopvc@terra.es)

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxe: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)